



Esther IRIARTE
Txingetan
Euskadiko txapeldun
→ 53

Moda

Gehigarri berezia → 11-22

IGANTZI → 30

Hirigintza Plan berezia eztabaidan

ZUBIETA-B.LABAIEN

Euskararen Eguna eta Urriruko besta

LEITZA → 42

Aurrerako Pesta izanen da larunbatean

GARTZAIN → 44

Pilarika bestak urriaren 8tik 12ra

Plazaolako natur bidearen 44 kilometro izanen dira erabilgarri azarotik aurrera

Leitzako Juan Martin Aleman eta Patxi Barriolak trenarekin eta trenbidearekin lotutako hamaika istorio kontatu dizkigute.



ERREPORTAJEA → 4-5



Elizondo, Doneztebe, Eratsun eta Goizuetako 5 gaztek osatzen dute Sutan musika taldea. Lehen maketa grabatu berri dute eta urri amaierarako espero dute argitaratzea.

ELKARRIZKETA → 3

SUTAN | Rock/Metal alternatiboa

«Errealitate gordin hau leuntzeko oihu egin beharra dago»

HEZKUNTZA → 10

Iaz baino 243 ikasle gehiagok hasi dute ikasturtea

4.912 ikasle izanen dira aurten eskualdeko ikastetxeetan. D eredu da nagusi.

GIZARTEA → 23

Mugarik Gabe Topaketa urriaren 16an Beran

Egun osoko egitaraua prestatu dute eta aurtengo herrialde gonbidatua Bolivia izanen da.

MIKOLOGIA → 37

Onddo eta Zizen Kofradiaren Eguna Elgorriagan

Igande honetan onddoak dastatzeko aukera ezin hobea Kofradiaren egun haundian.

HEZKUNTZA → 48

Herrietako eskolen bestan Zugarramurdi eta Urdazubin

Baztango eskolen eta Zugarramurdi eta Urdazubikoen besta izanen da igandean.

KULTURA → 50

Bertsulari xapelketako 3. kanporaketa Saran

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko xapelketako azken kanporaketa izanen da larunbatean.



SAKELEKO EGUTEGIAK



MAHAI EGUTEGIAK



PARETAKO EGUTEGIAK

Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR | Tel. 948 63 54 58 | kulturkari@tipi.net



URRIA 2010



Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Orteguna	Ortzina	Larunbata	Igandea
				1 <i>estatu egutegien aurtekontua</i>	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14 <i>argazkia kulturkarira bidali</i>	15	16	17
18	19	20	21	22		
25	26	27 <i>egutegiak OK</i>	28	29		

Egutegi Hikiak bi aldeetatik inprimatuak
Kartulina berezia 300gr · Distira akabera
Tamaina: 85 x 55cm

100 egutegi, 70 euro
200 egutegi, 85 euro
500 egutegi, 110 euro
1000 egutegi, 150 euro

aste bat gutti gora behera inprentan

«Rock/metal alternatiboa» egiten duten eskualdeko bartz gaztek osatzen dute Sutan taldea: Sergio Hualde (Elizondo) gitarrarekin, Mikel Grazenea (Doneztebe)

baxuan eta koruak egiten, Jon Zozaia (Goizueta) gitarrarekin, Unai Urroz (Doneztebe) bateriarekin eta Eneko Rabina (Eratsun) ahotsarekin. 2009. urte bukaeran

sortu zen eta geroztik zortzi kontzertu inguru eskaini dituzte. Orain, berriz, maketa argitaratzeko lanetan dabilta burubelarri. Urri bukaeran kalean izatea espero dute.

SUTAN | Elizondo, Doneztebe, Goizueta eta Eratsungo musika taldea

«Gazte sentitzen direnei produktuak aurrera ateratzera animatu nahi diegu»

G. PIKABEA

Nola sortu zen Sutan taldea?

Sergio eta Jon izan ziren proiektuari atea zabandu ziotenak, eta gero Mikel eta Eneko gehitu zitzaizkion bikoteari. Hasiera batean, lau kidez osatuta egon zen taldea: Sergio eta Jon gitarrarekin, Mikel baxuan eta Eneko baterian. Denbora pasatu ahala, abeslari bat behar genuela ohartu ginen. Lagun batzuekin probak egin genituen baina arrazoi batzuegatik ez zuten proiektuak sartu nahi izan. Azkenean, Enekok abeslariaren lekuaz arduratzea proposatu zuen, eta denak ados gelditu ginen. Bateriaren hutsunea betetzeko, berriz, Unairi egin genion eskaintza eta honek hartu zuen postu hori.

Nondik datorkio izena?

Sutan hitzak daukan esanahiak erakarri gintuen, espresioak: amorrua, sua... Hainbat izen proposatu ondotik, azkenean, honekin gelditu ginen.

Zer transmititu nahi duzuen musikarekin?

Rock/metal alternatiboa da emititzen dugun soina eta guretzat musika askatasun preziatua ukitzeko modua da, transmititu nahi dugun sentsazio hori.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sutan taldea osatzen dute bartz gazteak.

Euskaraz kantatzen al duzue?

Abesti gehienak euskaraz kantatzen ditugu, baina gure azken abestia gazteleraz sortu genuen. Halere, horrek ez du esan nahi euskaraz kantatzeari utziko diogunik, zerbait desberdina egiteagatik izan da... Ingelesari ere ongi etorria egin diogu, baina oraingoan, bertsiotan bakarrik.

Zer moduzko harrera du zuen musikak gure eskualdean?

Suposatzen dugu denetarik izango dela: ba-

MUSIKA ASKATASUNA
«Rock/metal alternatiboa da emititzen dugun soina eta guretzat musika askatasun preziatua ukitzeko modua da, transmititu nahi dugun sentsazio hori»

tzuei ez die ezer ere esango egiten dugun musikak eta beste batzuei, berriz, curiositatea piztuko die.

Diska kaleratzekotan zabilzate, ezta?

Maketa irailan kalera tu nahi genuen, baina gauza hauek oharkabean atzeratu egiten dira eta ziurrenik urri amaierarako kalean izango da. Bost kantaz osatua dago, baina oraingoan ez daukagu izen definitiborik diskarentzat. Donezteben, Jonen familiak duen bajaran egiten ditugu entsaioak

–lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu– eta han grabatu dugu. *Mariñe* arduratu da grabazioaz.

Kontent gelditu al zarete lan berriarekin?

Egia esateko oso gustura gelditu gara egin dugun lanarekin. Esan beharra dago *Mariñe* laguntza handia eskaini digula, pazientzia eta profesionaltasuna erakutsiz. *Potik* ere eskua sartu du grabaketan, abestiei bestelako itxura emanaz. Horregatik bie esker bereziak eman nahi dizkiegu hemendik.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Etorkizunak berak ikusiaraziko digu hori, baina kontzertuak eskaintzeko eta gauza berriak sortzeko ilusio handiarekin gaude.

Ba al duzue proiekturik buruan?

Nahiko ideia dabilta geure buruetan bueltaka. Maketa atera dugu, baina hau ez da hemen gelditzen, musikaren pasioak harrapatu egin gaituela dirudi.

Zerbait gaineratuko zenukete?

Gazte sentitzen direnei beraien produktuak aurrera ateratzera animatu nahi diegu. Errealitate gordin hau pixkanaka leun dezagun oihu egin beharra dago, musika askatasuna da.

NATUR BIDEAK → IRUÑEA ETA DONOSTIA LOTZEN ZITUEN PLAZAOLA TRENBIDEA

Uitziko tunela zabaldua Nafarroan Plazaolako trenbideak dituen 22 kilometro geldituko dira berreskuratuak

Azaroan irekitzea espero du Plazaola Partzuergoak

Bere garaian meatzerako, merkataritzarako eta komunikaziorako izan zen Plazaolako trenbidea, aisialdirako bihurtu da orain. Eta trena

kendu zutenetik 52 urtera, Donostia eta Iruñea lotzen zituen trenbidea oinezko eta txirrindularientzako egokitzen ari dira gaur egun.

G. PIKABEA

Historia luzea du Plazaolako trenak. Mende hasierako garai oparoan sortu zen eta hastapeanean, meatzerako trena izan zen; Plazaolako meatzetatik Andoainera burdina garraiatzeko erabili zen. 1914an bidaiari-trena izatera pasatu zen, eta Donostia eta Iruñea lotzen hasi zen. 40 urtez iraun zuen horrela, eta merkataritzarako eta komunikaziorako bidea izan zen. 50. hamarkadatik aurrera, ordea, gainbehera joan zen. 1953ko uholdeak alde batetik, eta autobusen kompetentziak bestetik, 1958an trenbidearen itxiera eka-

rri zuten. Aurtengo irailean, hain zuzen, 52 urte bete dira Plazaolako trena kendu zutenetik.

Urteetan utzia eta baztertua egon ondotik, azken aldian aisialdia du Plazaolak eskaintzeko. Eta aisialdia apustu ona dela konturatuta, bere garaian Iruñea eta Donostia lotu zituen trenbidean berreskuratze lan haundia egiten ari da azken urteotan. Plazaola Partzuergo Turistikoa da bultzatzaile nagusia. Eta horretarako Espainiako Gobernuko Ingurumen Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza hartu izan du. 1998an egin ziren lehen-

dabiziko obrak, Lekunberriko geltokia berreskuratuz. 2000an zabaldu zen Lekunberri eta Uitziko artean egokitutako bost kilometroko lehen zatia eta Mugiro aldera beste bi kilometro gehiago berritu ziren gero. 2001ean, bigarren zati batean, Leitzaldeko 12 kilometroko egiteko lanak kontratatu ziren, Gipuzkoako muga eta Uitziko tuneleko sarreraren bitarteko zatia, hain zuzen. Guztira, oraingoz 19 kilometro berreskuratuko dira Nafarroan, baina Uitziko tunela gelditzen da egiteko, Gipuzkoa aldean egokitutako 22 kilometroekin, 44 kilometroko zatia prest izateko.

UITZIKO TUNELA

Uitziko tunela da berreskuratze lan horien hirugarren helburua. Maitea Ezkutari Plazaola Partzuergo Turistikoko kudeatzaileak adierazi digunez, «proiektu garrantzitsua da. Natur bideetan kilometro asko izatea oso garrantzitsua da eta Uitziko tunela irekita, 44 kilometroko zatia geldituko da». Europa aldetik jende gehiago etorriko litzatekeelakoan dago: «Gehienbat Europan dago zikloturistaren perfila, eta turismoa sustatzeko aukera handia izanen litzateke». Tuneleko obrak udan bukatzekoak ziren, baina luzatu egin dira.

Lehendabiziko urtean zorua berritu zen; hurrengoan tunela argiztatu eta azkenekoak bobedako konponketak izan dira. «Segurtasun aldetik azterketa geotekniko batzuk egin genituen eta hor eskatzen zena egin ondotik, enpresak bobeda osoa mailazoarekin jartzeko aholkatu zigun», azaldu digu Ezkutari. Horixe da hain zuzen tunelaren irekiera atzeratu izanaren arrazoia. Irailaren 2an Partzuergoak eta Lekunberri, Leizta eta Larraungo Udalek hartu zuten erabakia: «lan gehiago da, baina lasaitasun gehiagorekin geldituko gara», dio kudeatzaileak. Dena den, azarorako zabalduko dela uste du, irekiera ofiziala berandugarako utzi arren: «Guretzat azaroa hilabete txarra izaten da, eguraldi aldetik gogor jotzen duelako eskualde hau, eta udaberri aldera egitea pentsatzen dugu».

Bobedako lanak luzatzeak ez omen du aldaketa esanguratsik ekarriko 1.391.908 euroko aurrekontuan -%60 subentzionatua-. Kudeatzaile-



BIZIKLETA GARRAIOBIDE

Herrietan bizikletaren erabilera indartu nahi da

Plazaola Partzuergo Turistikoa badu bertzelako egitasmo bat ere eskuartean: herriz-herriz bizikletaren zerbitzu publikoa jartzea. Hasierako helburua biztanleek herri bakoitzean bizikleta erabilteza da eta Irurtzun, Leizta eta Lekunberri eginen dute hasierako proba. Aurrera begira, berriz, herri batetik bestera mugitzeko he-

rritarrek natur bidea erabiltzea da erronka. Horren harira, Crana Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabideen Zentroarekin elkarlanean, *Pedalkadak iraunkortasunerantz* erakusketa zabaldu dute berriki Lekunberriko Turismo Bulegoan. Natur-bidearen inguruan lehenetik duten erakusketa, bestalde, herriz herri ibiliko da.





ARGAZKIA: PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA
Jende dezentek erabiltzen du Plazaolako natur bidea paseatzeko.

PATXI BARRIOLA ETA JUAN MARTIN ALEMAN LEITZARRAK

Bidaiarientzat garraiobidea, baserritarrentzat buruhaustea

Plazaolako trenarekin eta trenbidearekin lotutako istorio asko dituzte kontatzeko Leitzako Pastain baserriko Patxi Barriola (80 urte) eta Olaso baserriko Juan Martin Alemanek (73 urte). Biak trenbidearen ondoan jaio eta bizi dira, Leitzako geltokitik metro gutxira Barriola eta Gipuzkoarekin muga eginez, Plazaolako geltokitik hurbil Aleman, koinatuak biak.

Trenbidea ttikitatik «soberan» ezagutzen dutela adierazi digute bi leitzarrek, trenbidea euren lurretatik pasatzeaz gain, Alemanek azaldu digunez, «beti jaleoan ibiltzen ginen, aziendak harrapatzen zituelako». Barriolak ere badaki zer den hori: «trenbidea irekia egoten zen eta egun batean zortzi ardi harrapatu zizkigun trenak». Noizbait Pastain azpian dagoen tunelean trenak asto bat ere moztu omen zuen erditik. «Behiak, behorrak, ardiak... denetarik harrapatzen zituen», dio Alemanek. Baina minik haundiena trenbidearen bi bazterretara hartutako lur eremuak kendu izanak ematen diete bi koinatuei. Lur eremuak erre ere egin zitzaizkien trenaren joan-etorrietan. Barriolak kontatu digunez, «labea gehiegi berotzen zenean, ikazkinak kanpora botatzen zuen brasa eta horrela erre zen Leitzako Tutenekoborda baserria». Aleman familiari, berriz, belardizati haundia erre zitzaion horrela.

Trenbide ondoko baserriarrentzat buruhaustea izateaz aparte, Leitz eta inguruetako herrietako jendearentzat garraiobide garrantzitsua izan zen. «Garai hartan, Iruña eta Doneztebe artean autobusa izaten zen, baina kotxe-



Juan Martin Aleman eta Patxi Barriola.

rik ikusi ere ez, eta trena jende askok erabili zuen», esan digu Barriolak. Trena ligatzeko ere aproposa omen zen: «orduaz ez zegoen diskotekarik- dio irriz Pastaingoak- eta trena ordurako jendea geltokian biltzen zen». Eta Alemanek «trena pasatzen ikusteko pareja mordoska ibiltzen zela», kontatu digu.

Bi koinatuak ere ibili ziren bere garaian trenean. Barriola, esaterako, soldaduskara trenean joan zen. Eta mutiko kozkorak zirela, sarritan ordaindu gabe ere ibili omen zuten trena: «*mesilla* deitzen genion karroan edo trenaren atzeko balkoian ordaindu gabe ibiltzen ginen», dio Olakokoak. «Trena abiatzean balkoira igo eta gelditzearekin batera salto eta etxera», adierazi digu Barriolak.

KONTRABANDORAKO APROPOSA

Plazaolako trenak aukera ona eman zien kontrabandiestei ere, Nafarroatik Gipuzkoara produktuk mugitzeko: azukrea, irina, olio,

arraultzak, babarrunak... Eta kontrabandoaren inguruko anekdotak ere asko dituzte bi leitzarrek. Guardia zibilen kontrolak ere izaten omen ziren, baina harrapatutakoan eurentzat gelditzen omen zituzten produktuak. Hona hemen Alemanek gogoan duena: «errotak itxita egon beharra izaten zuen, eta gau batean, guardia zibil pareja errota zaintzera bidalia bazuten ere, gau guztian errota mar txan egon zen, eta epel-epel errontan egon ziren. Errotazainak bizpahiru kilo irin eman zizkien gero eta mar txan egin zuten». Barriolak ere badu poliziaren nondik norakoen berri: «Meza Nagusitik etxera nindoala, *caballistak* gelditzeko esan eta gure etxean zegoen parejari bisita edukiko zuela esateko eskatu zidan. Etxera joan, parejari *caballistak* esandakoa kontatu eta mar txan egin zuten».

Onak batzuk, txarrak besteak, baina oroitzapen andana dituzte Barriolak eta Alemanek, entzutea merezi duten kontatzeko asko.

ak eman dizkigu azalpenak: «Zoruan porlana jartzeko asmoa genuen, baina ongi pentsatuta, bobedaren lan horiei eman diegu lehentasuna, nahiz eta aurrera begira zoruan mantenimenduan lan gehiago egin beharko diren». Uitziko tunelak dituen 2.680 metroak zabaldu ta, Nafarroan 22 kilometro geldituko dira berreskuratutak.

Uitziko lanez aparte, badira berriki egin diren beste batzuk ere. Hala nola, Telleriko tunelaren parean bidea zabaldu da. Orain arte oinezko eta txirrindulariek Leitz eta Goizueta lotzen dituen Basakabi errepidera jaitsi behar izaten zuten eta errepide ertzetik ibili. Orain, ordea, tunela itxita gelditu bada ere, natur bideetik atera gabe ibil daiteke oinez zein bizikletan.

Leitzan azken urtebetean egin den beste inbertsioa geltokia berreskuratzea izan da. Nafarroako Gobernuak joan den urtean txukundu zuen. Honen inguruan ere badu proiektu bat Plazaola Partzuergoak: «Gobernuak utziko zuela iragar-

ri zuen, eta gure asmoa aterpe moduko bat egitea da. Baina krisia dela eta, gauza asko gelditu dira eta egitasmo hori ere hor dago». Ezkutariaren irudiko, aterpe horrek turismoari eta natur bideari «bultzada ederra» ematen lioke.

Etorkizunera begira dauden beste proiektuetako bat Imotzeko zatia berritzea da, Lekunberri-tik Iruztunera doana. «As-

palditik gabilta zati horren atzetik, eta azkenik Ingurumen Ministeriotik obra hori egiteko finantzazioa lortu da». Bidea berreskuratzeaz gain, ibaiaren gainean pasabideak jartzeko asmoa ere badute. Lanak aurten hastea espero dute Partzuergoan eta urte batez bukatuko direlakoan daude. Horrekin batera, Iruztundik Iruñerako zatia Udalez gairako Eragin

Sektorialeko Planaren barne babestua dago, eta natur bide bilakatzea du helburu. Kudeatzailearen hitzetan, «plan horrekin zati hori berreskuratzeke egitasmoa prestatzen ere has gaitzke».

Imotzeko zatiarekin Nafarroan 30 bat kilometro egonen liriteke oinezko eta txirrindularientzako prest eta Gipuzkoarekin batera, guztira 50en bat. Iruñea eta Do-

nostia arteko 85 kilometroak noizko berreskuratuko diren esatera ez da ausartu Ezkutari, baina duela urte batzuk «utopia» zena egi bihurtzen ari da poliki-poliki. Mar txan honetan, «dena ongi baldin badoa, lau urtetan Nafarroako zatia egina egon daiteke», adierazi digu. Antza, Gipuzkoan, bestelako arazo batzuk dituzte, tartean espropiazioak.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Maitatu gutiago, gozatu gehiago

Ez, ez naiz maitasunari edota sexuari buruz ari, ez, euskarari buruz baizik. Bertze errealitate batzuk ezagutzera konturatzen gara gure errealitateaz. Niri ere hala pasatzen ari zait. Berriz ere ikasten hasi naiz, Iruñean, eta unibertsitateko ikaskideen euskararen errealitate desberdinak ezagutu ditut. Nafarroako euskararen egoera aski eza-guna baldin banuen ere, are gehiago ohartu naiz orain ingurune euskaldunean bizi garenek dugun zorteaz, dugun pribilegioaz. Aunitzetan ez gara konturatzen, ez diogu duen balorerik aitortzen. Batzutan, euskara mingaineratzeaz atzentzen gara, beti euskalzaleak gara la aldarrikatu arren. Hortaz, egin diezaiozun kasu Anje Duhalderi, bere kantu baten letrari erreparatu: MAITA NAZAZU GUTTIAGO ETA GOZA NAZAZU GEHIAGO.

«Batzutan, euskara mingaineratzeaz atzentzen gara, beti euskalzaleak gara la aldarrikatu arren».

Ezpala

Aitor AROTZENA

Julia Roberts ere euskaraz

Katalanez egindako filmeko zuzendariei galdera kazetari espainiarrak Donostian: «Pentsatu al duzue horrek merkatuan zabaltzeko ekar ditzakeen arazoetan?». Gabriel Arestiri erran omen zioten behin, irakurle gehiago edukitzeko hobe zuela espainolez idatzi. «Irakurle asko eduki nahiko banitu, gaztelaniaz ez, txineraz idatziko nuke», erantzuna. Eta Julia? Hau irakurrarazteko behar nuen.

Nabarmentzekoak



Mikel NIEVE
Leitzako txirrindularia

Profesionaleko lehen garaipena non, eta Espainiako Vueltako etapa nagusian lortu zuen leitzarrak Cotobellon. Lider zenean eroritako Igor Anton taldekideari eskaini zion garaipena.



Esther IRIARTE
Berriz txapelkun txingekin

Hirugarren urtez segidan Euskadiko txingaramate txapelketa irabazi du 23 urteko narbartearrak. Laz egindako markatik urrun gelditu bazen ere, nahiko erraz nagusitu zen Iriarte.



Angel PONBAR
Gure Txokoako presidente

Irailaren 17an egindako batzarrean zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen Berako elkarterik handienak. Angel Ponbar izanen da Gure Txokoako presidente datozen lau urteetan.

Atzera begira → 1993.10.07 / TTIPI-TTAPA 119. zbk



Bonberoen lana ezagutzen Oronoz-Mugairiko parkean

Bonberoak: Sua hiltzea baino zerbait gehiago izenburupean, Oronoz-Mugairiko parkeko Paulino Garciak eta Juan Bautista Oteizak suhiltzaileen lanaren berri eman zioten TTIPI-TTAPAri duela 17 urte. Parkeko zerbitzua egun osora zabaltzeko esperantza zuten orduan, «hau arazo serioa da, gauez, gehien behar denean ez baitago bertako zerbitzurik», zioten. Garciaren erranetan, «suteetan zer egin jakiteko ikastaroak egin beharko lirateke» eta sute gehienak abendua eta martxo bitarte gertatzen direla ere azaldu ziguten, «iratzek eta belarrak idorrek daudenean».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartera, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Cotobello elurtu duen printzea

Joseba URKIOLA

Irailaren 13ko arratsa nekez ahaztuko dute inguruko txirrinduzaleek. Leitzar gazte batek Espainiako Itzuliko etaparik arranditsuena irabazi eta bere izena, handien artean zizelkatu zuen. Zuetako askok ezagun izango duzuen arren, beste askori oraindik arrotz izango zaizue. Ziur naiz dena den, bere bizikleta lagun askotan igaro izan dela zuen begi aurretik. Orain urte batzuk aurrezki kutxa bat iragartzen zuen jantzi zuri berdearekin. Gero, Eibarko enpresa mitiko baten elastiko urdinarekin eta azken bi urteetan laranja. Nork esan behar zuen orain urte batzuk Migel Indurain, Abraham Olano, Joseba Beloki eta Iban Mayoren izena entzuten genuen gisara, Mikel Nieverena aditu

«Baina moda kontuak edo, denboralditxo bat pasa eta eta pedal kolpeak gelditu egiten ziren. Cotobelloko printzeak aurrera egin zuen»

behar genuenik? Kirol telebistako lehiotxoan berea zen protagonismo osoa. Izarrez jositako tropela berak jarritako erritmoan aritu zen dantzaz. Hamelingo txistularia zirudien, denak Euskatela-Euskadiko gaztearen atzetik nahi eta ezinean. Juanjo Oroz eta Amets Txurrukaren lana ezinbestekoa izan zen leitzararentzat. Etxean zeuden guztiek ere eman zioten beren laguntza partikularra. Batzuk nahi gabe izerdiz busitako eskuak pantailan itsatsi eta indar guztiarekin bultzatuaz. Besteak, birrikak toperaino bete eta putz sutsuki, lehertu beharrean eginez. Irratiz entzuten ari zirenak, berriz, oihu eta txalo zarta geldiezin. 26 urteko gaztea Cotobelloko helmuga zorrotzean printze bilakatu zen. Bi eskuak zerura, begiak itxi eta oihu egiteko garaia. Garaipenaren ulu ase ezina. Tranpaldo dotorean saria jasotzen ikustean, burutazio eta bizipen asko etorri izan zitzaizkien askori beren burura. Makina bat herritar gogoratuko ziren, 90eko hamarkada haseran Umeen Egunean antolatzen zen lasterketaz. Jesus Zabaleta esatariaren hitzaldiak, txirrindulari gazte denek zeukaten guztia ematen. Indurain, Zulle, Rominger, Pantani, Olano ziren askoren idolo eta erreferentzia. Txirrindularitzak beste oihartzun bat zeukan eta asko ziren, bi gurpilekiko pasioak harraipatzen zituenak. Baina moda kontuak edo, denboralditxo bat pasa eta pedal kolpeak gelditu egiten ziren. Gutxi izan zuten aurrera jarraitzeko animoa, gogoa eta adorea. Cotobelloko printzeak aurrera egin zuen beste lauzpabostekin batera. 90ko hamarkada haseran ereindako haziak, irailaren 13an eman du bere fruiturik gozo eta emankorrena. Espainiako Itzuliko garaipena, herrian bizikletaren alde lan egiten dutenen garaipena ere bada parte handi batean. Eskerrikasko Mikel, astelehen buru zuri bat sariz janzteagatik. Eskerrik txirrindularitza arazoak-arazo kirol handia dela bergogoratzeagatik. Mila zorion Espainiako Itzulia indar, pasio, maisutasun eta poz malutez elurtzeagatik.

Akelarreak? Non? Noiz? Norekin?

Luis GARDE

Duela urte aunitz entzun nion, ez naiz oroitzen nori, gure *Akelarre* hitza euskaratik munduko hizkuntza askotara hedatu dela; japonieran, adibidez, badutela hitz hau. Egia erran, Google-en itzultzaile automatikoa erabiliz, ez dut aurkitu inongo hizkuntzatan, gaztelaniaz izan ezik. Gehienek «sorginen bilera» edo horrelako espresioa erabiltzen dute *Akelarre*aren kontzeptua adierazteko, gure hitza zuzen-zuzen hartu gabe.

Nondik datorkit bat-bateko interes hau hitz honetan? Antropologo batek, Jose Duesok, berriki argitaratu duen liburu batean Urdazubiko eta Zugarramurdiko sorginei egindako prozesuak aztertzen ditu. Eta gai honetaz mende mendez eraike diren mitoak eraisten ditu, erranez, adibidez, sorginak ez zirela katu beltz bihurtzen, edota larre batean ez zirela biltzen aker beltzez mozorrotutako deabruarekin. Beraz, izatekotan ez ziren ezta sorginak ere. Emakume haiek, hori bai, zertxobait bihurriak ziren monasterioaren boterearekin, eta horregatik abadeak salatu zituen Inkisizioaren aurrean, zigorra eman nahian. Hau guzti hau gutxi balitz bezala, *Akelarre* hitzaren esanahia ez da «akerraren larrea».

«Akabo gure ekarpena kultura unibertsalari! Orgia, belar eta edari haluzinagarriak, neurririk gabeko sexua, deabruarekiko parrandak ilargipean... sintzeroki imajina dezakegu gure arbasoak halako saltsan plisti-plasta?»

Jende hura «alkerdiaren» larre batean biltzen zen, eta alkerdia belar mota bat baino ez da. Hortik omen dator Urdazubiko Alkerdi auzoaren izena.

Akabo gure ekarpena kultura unibertsalari! Orgia, belar eta edari haluzinagarriak, neurririk gabeko sexua, deabruarekiko parrandak ilargipean... sintzeroki imajina dezakegu gure arbasoak halako saltsan plisti-plasta?

Ongi pentsatuta, gure izaera, gure problemak, geure buruarekiko gatazkak aztertuta, nola ez sinestu akelarreak ez direla bertze «tradizio» batzuk bezain faltsuak? Garai gogorak tokatu zaizkigunak. Ezta gezur kontsolagarriak ere ez zaizkigu geratzen.

(Portzierto: jakinminak jotako irakurleak, irakur dezala gaztelaniazko Wikipedian *aquejarre* sarrrera. Haluzinatuko du. Edaririk edo belaririk behar gabe.)

Irakurleak mintzo

Berezkoa eta ederra, berez aski ederra den inguruan

Antton ERKIZIA (Lesaka)

Guretzat, lesaka-rrontzat, aski kuttunak dira Onin bazterrak. Ba hortxe, etxe baten zahar-berritze lanak burutzen ari dira oraintxe bertan. Maria Maioren etxea deitzen genion umetan, ikatz egurra etxez-etxeko garaie-tan. Banketxe bat egon zen bertan, gero erloju denda... Aspaldiko kontuetaz ari naiz.

Gauza da, etxe hori berritze lanetan ari dela nagusia. Modu

«praktikoan», modu merkeenean eta tarrapatu egin zezakeen obra lana, baina gauzak ongi egin nahi izan ditu Jose Antoniok, etxe aurpegiari berezko egur eta keinuak ateriz eta berretuz eta txukunduz. Hara ze fatxada bikaina, berezkoa eta ederra, berez aski ederra den inguruan.

Badakit horrelako lan aunitz badagola gure bazterretan. Bat baina aipatu ezinik, hau dut gaur aipagarri, denon omenetan. Gure sorterrria eta gure bazterrak maite ditugunon izenean: eskerrik asko bizitza edertzeagatik.

«Aitaren etxea defendituko dut...» honela ere.



Bota bertsoa

Xabi MAIA (Baztango bertso eskola) • Doinua: Munduko ilunabarra

Donezteben futbol zelaia?

Aspalditik behar zena orain albiste gorena sinatu dute baimena akabo gure problema urte aunitzez sufritu dugu errepideen kondena nola ez entzun hainbertze jendek hasi zuten ekimena erakundeei so egin arren bulegotan zegon dema inbertsioa latza da baina dirua ez dugu dena neska mutilen osasuna da inbertsio haundiena

Amestu genuen gola pasea eta kontrola baloi baten parabola egi bihurtze dagola nahiz ta askotan futbolarekin berotzen zaigun odola fama gosea eta dirua ardatz ez dugu inola gure artetik ez da irtengo Cristiano edo Guardiola baina balore zenbait hartzeko eskola bada futbol Amets Arzallus haundiak ere egiten duen kirola

Hezkuntza pribatua

Xanti BEGIRISTAIN (Iruñea)

Berriz ere, Iruñeko Udalak, hau da, gobernatzen duen taldeak, eta, gainera, deus eginen ez balu bezala, diru-laguntza eman omen dio Txantrea auzoko gaztelaniazko Hijas de Jesus ikastetxe katolikoari, 0-3 urteko hezkuntza gaztelania hutsean eman dezaten.

Hasieratik adierazi behar dut oso gaizki irizten diodala, hainbat eta hainbat arrazoigatik, gainera. Hasteko, Espainiako estatuak akofesionala aitortzen omen du bere burua konstituzioan, hortaz, ba, ez dakit zergatik bultzatu behar duten ikastetxe erlijioso eta pribatu bat, publikoak baino lehen, eta, kasualitate orain ere, hara, gazte-

lania indartu eta bultzatu behar dute, eta, bitartean, euskara, ordea, zokoratu, ahuldu, suntsitu eta ez ikusiarena egin.

Iruñe osoan bi haur eskola euskaldun publiko baino ez daude, eta, gainera, biak auzo berean, gehiago izorrazteko, Txantrea, alegia. Urteak eta urteak dira euskal haur eskola berririk ez duela egin UPNko gobernuak, nahiz eta eskaera eta premiak guttiz nabarmenak izan.

Ingeles eta gaztelania-ekin, aldiz, ez da beste horrenbeste gertatzen. Nahiz eta aparteko eskaera eta mobilizaziorik inork egin ez, erdarazko eredu horiek erraztasun eta oparotasun guztiak gozaten dituzte hemen eta han, euskararen aurrean, azken hizkuntza honen irainerako.

Berriz ere, gure zoritxarrerako, ikusten ari ga-

ra UPN, PSNren ordainezko laguntzarekin, zitalki jokatzeko ari dela Iruñe eta Euskal Herri oso bere hizkuntzarik zaharrenaren aurka. Arrazoiak? Auskalo! Baina, hasteko, behinik behin, erakusten ari dira demokrazia gabezia ikaragarria dutela, euskal kulturari amorratiozko gorrotoa, inposizioa praktikatzea gustukoa dutela, dibertsitatea eta aniztasuna ez dituztela maite...

Bukatzeko, nik uste, Iruñea bezalako udal batek deus baino lehen, eta inolako zalantzarik gabe gainera, bultzatu eta sustatu behar duela hezkuntza publikoa, bi hizkuntzetako bakar bat ere baztertu eta ahuldu gabe. Guztia ongi egin ondoren eta dirua sobran badago, erduan aztertuko dugu zer nolako itunak egiten ditugun hezkuntza pribatukoekin.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Badakit irabazi egin dudala, baina oraindik ez dut asimilatu (...) Ikusten nuen ongi nindoala. Sentsazio onak nituen. Bakarrik beldurra nuen azkene-ko mendatean atzetik faboritok bat-batean abiatzen baziren harrapatuko ote zidaten. Egia esan nahiko ongi aurkitu nintzen eta nahiko azkar igo nuen. Ez zidaten harrapatu eta hobe».

Mikel NIEVE
Leitzako txirrindularia
HITZA, 2010.09.16

«Garrantzitsuena berriz frontoietara bueltatu naizela da, hori baitzen niretzat garrantzitsuena. Beldur pixka batekin aritu naiz batez ere makurtzerakoan eta pilotaren bila joaterakoan, baina hori normalea da, ebakuntza egin zidatenetik lau hilabete besterik ez dira pasatu. Bigarren entrenamendua izan da eta nahiko gustura aritu naiz».

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
EITB, 2010.09.22

11 galdera labur

Zein da katalan eta euskaldun baten arteko desberdintasun nagusia?

Ez dut uste bien artean desberdintasun handirik dagoenik. Beharbada bizitza hartzeko modua, baina euskalduna mendian, presarik ez dagoen tokian, ezagutu dudalako erraten dut hori.

Zertan dute antzarik haundiena?

Biei gurea dena gustatzen zaigu, eta ez diezagutela aldatu.

Zer da Zugarramurditik gehien gustatu zaizuna?

Bertako jendea eta inguru zaindua.

Zugarramurdiko jendea hitz bakarrean definitu beharko bazenu, nola egingen zenuke?

Jatorra.

Zer pentsatzen duzu sorginen misterioaz?

Ez dut uste inolako misteriorik dagoenik belarren ezaugarriak eta bertzelakoak ezagutzen dituzten pertsonengan.

Sorginen Museoa ala leizeak. Zein nahiago?

Leizeak, dudarik gabe.

Zein afizio dituzu?

Lorezaintza.

Jaterako orduan, zikiroa edo txuleta eder bat?

Oraindik ez dut zikiroa probatzeko aukerarik izan.

Sorginen Eguna, bestak, inauterriak... Zein aukeratu-ko zenuke?

Sorginen Eguna.

Nabaritu al da krisia landetxean?

Aurten datozen bisitarietako dagokienean, ohiz kanpoko urtea izan da eta izaten ari da.

Gustura bisitatuko zenukeen toki edo herrialde bat?

Eskozia.



Toni ALIER → Zugarramurdin bizi den kataluniarra

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

BERA
Zero inguru klaste guzietako insektuz (xomorro, zinoarra, ormiarra, kukuxu...) eta orretoi xagutzar garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tfno: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

m bentamiguel
denda, jatebidea eta ostalua
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeratu
Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdabegia
Ibardingo Lepoa • 948 631 209

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA
AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI
Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak
Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

HEZKUNTZA

IKASTURTE BERRIA → IKASTETXEETAKO DATUAK

4.912 ikaslek hasi dute ikasturtea, iaz baino 243 gehiagok

D eredia da nagusi

TIPI-TTAPA

4.912 ikaslekin diote ikasturteari Baztan, Bortziriak, Bertizarana, Malerreka, Leitza, Urdazubi-Zugarramurdi, Sara eta Senperen. Iazko

datuekin alderatuz, gora-kada kasu gehienetan eman da, Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan izan ezik, eta kopuru absolutuaren kasuan, iaz baino 243 ikasle gehiago dira. Hizkuntza ereduetan, Dereduak segitzen ikasleen aukera nagusia izaten.

BIGARRREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

>12 urteak

BIGARRREN HEZKUNT.

	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	40	0	222
Lekaroz-Elizondo	40		222
BORTZIRIAK	20	26	238
Arantza IP			7
Bera (Toki Ona)	20	26	188
Bera (Labiaga Ikast)			43
LEITZALDEA	0	0	127
Goizueta (AN Xalto)			6
Leitza (Amazabal)			121
MALERREKA	8	0	172
Doneztebe (Mendaur)	8		172
XARETA	150	70	2
Senpere (Arratxea)	150	70	
Urdazubi-Zugarram.			2

Guztira **218** **96** **761**

↓
% 0,65
2010-11 Guztira 1.075
2009-10 Guztira 1.082

BATXILERGOA

>16 urteak

BATXILERGOA

	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	15	0	128
Lekaroz-Elizondo	15		128
BORTZIRIAK	0	0	77
Bera (Toki Ona)			77
LEITZALDEA	0	0	38
Leitza (Amazabal)			38
Guztira	15	0	243

↓
% 2,64
2010-11 Guztira 258
2009-10 Guztira 265

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredia	B eredia	D eredia	A eredia	B eredia	D eredia
BAZTAN	4	0	242	34	0	439
Almandoz IP			3			17
Amaiur IP			15			16
Arizkun IP			16			32
Arraioz IP			7			7
Azpilkueta IP			2			9
Elizondo (S. Fco. J.)	4		82	34		146
Baztan Ikastola			63			98
Erratzu IP			7			19
Gartzain IP			4			12
Irurita IP			21			42
Ornoz IP			18			27
Ziga IP			4			14
BERTIZARANA	0	0	12	0	0	15
Legasa IP			6			1
Narbarte (Arotzenea)			6			14
BORTZIRIAK	5	20	290	12	50	449
Arantza IP			13			29
Bera (Ricar. Baroja)			74			103
Bera (Labiaga Ikastola)			50			88
Bera (Jesusen Biho)	5	20		12	50	
Etxalar (Landagain)			29			45
Igantzi IP			18			41
Lesaka (Irain)			58*			86
Lesaka (Tantirumairu)			48*			57
*2 urtekoak barne						
LEITZALDEA	0	0	133	0	0	205
Areso IP			8			13
Goizueta (AN Xalto)			23			38
Leitza (Erleta IP)			102			154
MALERREKA	6	5	151	18	10	271
Beintza-Labaien IP			3			6
Doneztebe (S. Miguel)	6	5	107	18	10	182
Eratsun IP			2			2
Ituren IP			13			39
Saldias IP			1			5
Sunbilla IP			25			37
XARETA	82	156	92	227	185	92
Sara (Publikoa)	3	22		2	18	
Sara (St. Joseph)		38		21	40	
Sara (Olhain Ikastola)			37			35
Senpere (Publikoa)	29	71	0	74	87	
Senpere (Amotz publ.)	5			60		
Senpere (St. Joseph)	45	25	0	70	40	
Senpere (Zaldubi Ikast)			39			31
Urdazubi-Zugarram.			16			26
Guztira	97	181	920	291	245	1.471

HEZIKETA ZIKLOAK / LIZEOA

>16 urteak

HEZIKETA ZIKLOAK

	Prestak	HLKP	Erdi Maila	Goi Maila
BAZTAN	22	37	76	31
Lekaroz-Elizondo	22	37	76	31
BORTZIRIAK	0	0	23	10
Bera (Toki Ona)	0	0	23	10
XARETA	0	0	0	175
Senpere (Laboran. lizeo)				175
Guztira	22	37	99	216

↑
% 10,43
2010-11 Guztira 374
2009-10 Guztira 335

HAUR HEZKUNTZA

↑
% 2,17
10-11 Guzt.: 1.198
09-10 Guzt.: 1.172

LEHEN HEZKUNTZA

↑
% 9,57
10-11 Guzt.: 2.007
09-10 Guzt.: 1.815

HIZKUNTZA EREDUAK

A eredia: erdaraz
B eredia: mistoa
D eredia: euskaraz

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Mugarik Gabe Topaketa egingen da urriaren 16an Beran

Futbito txapelketan parte hartzeko Gizarte Zerbitzuetara dei daiteke

TTIPI-TTAPA

Etorkinak eskualdean gizarteratzeko helburuarekin, eta herrialde bakoitzeko kultura hemen ere ezagutua izan dadin, Mugarik Gabe Topaketa antolatuta dute aurten ere Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Berako etorkinen komisiok, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin. Urriaren 16an, larunbatarekin, egingen da Beran eta joan den urtean Ekuadorrekin egin



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtekoa Mugarik Gabe Topaketarena seigarren edizioa izan zen.

bezala, aurten Bolivia izanen da bereziki gogoan izanen den herrialdea.

FUTBITO TXAPELKETA

Egun haundiaren aitzinetik, urriaren 9an,

Mugarik Gabe jaialdian ohikoa bihurtu den futbito txapelketa jokatzea da antolatzaileren asmoa. Oraindik badago izena emateko aukera eta interesatuek Gizarte Zerbitzuetara deitu

beharko dute: 948 635036.

JAIALDI HAUNDIA URRIAREN 16AN

- 11:00etan haurrentzako jokoak.
- Goizean hasi eta

BOLIVIA GOGOAN

Aurtengo topaketan Bolivia izanen bereziki gogoan izanen den herrialdea. Joan den urtekoa, berri, Ekuadorri eskainitakoa izan zen.

eguerdira bitarte, erakusketa izanen da Labiaga Ikastolan eta Marfil Kostako emakume bat trenza afrikarrak egiten ariko da.

- 17:00etatik aitzinera: Boliviako dantza talde baten emanaldia eta luntxa izanen dira. Ohi bezala, Bolivia, Uruguai, Argentina, Ekuador eta Euskal Herriko janari eta edariak ere eskainiko dira. Futbito txapelketako sari banaketa ere orduan egingen da.

ASISTENCIA DOMICILIARIA

ZENTURIA

Zure zerbitzura eguneko 24 orduak...
... urteko 365 egunak

ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA
.....INON EZ!

ZENTURIA ETXERO LAGUNTZA TALDEA
ZURI LAGUNTZERA DATOR!

- Arreta pertsonalizatua - garbitasuna-Jaki/Oheratu
- Etxeoko laguntza - garbitasuna - konpainia
- Fitoterapiak - produktu naturalak
- Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
- Asteburuak - familiaren atsedenaldia
- Gauak - ospitalea/etxea
- Barmeko langileen kudeaketa
- Langile kualifikatuak

MENDEKOTASUN LEGERAKO PRESTAZIO
EKONOMIKOEN KUDEAKETA EGITEN DRUGU

Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698
ayudadomiciliaria@zenturia.es
www.zenturia.es

ERREKALDE

PLAZA KONKURTIAK

PAIZAK

ARREKALDE

IFEMA: 948 630 259 #ZEDA

SEAT

VW

HYUNDAI

Audi

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (sarrera Beratik)

Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ANTZUZELAS

S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Ahorratzen eta Sentzen

Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak

Agurtzen eta Muzten
Laguntza eta Laguntza

ZINBERRIEN
KIDENAK
ZILAK

Inongo errepitibea
BENA

KULTURA

BERTSOAK → AURTEN BIGARREN EDIZIOA

Abian da Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsulari xapelketa

Finala azaroaren 13an jokatu da Donibane Lohizunen

TTIPI-TTAPA

Irailaren 18an hasi zen Muskildin (Xiberoa), Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsulari xapelketa, hiru herrialde hauetako txapelketaren bigarren edizioa. Hiru kanporaketek, bi finalerdik eta final haundiak osatuko dute txapelketa eta azaroaren 13an jakin da nor den nor den aurtengo txapelduna.

Donibane Lohizuneko pilotalekuan egingen da finala.

20 BERTSULARI

Guztira 20 bertsularik hartuko dute parte txapelketa honetan, eta horietatik ia denak 30 urtez beheitikoak dira. Mixel Aire *Xalbador II.a* da adinik gehien duena, 66 urtekoa. Hauek dira bertsulariak: Odei Barroso (Urruña), Patxi Iriart (Hiriburu), Bixente Hirigarai (Baigorri), Joanes Etxebarria (Barkoxe), Ximun Cazaubon (Jatsu), Ramuntxo Christy (Aiherra), Miren Artetxe (Hendaia), Xumai Murua (Azkaine), Kristiñe Txoperena (Hen-



ARGAZKIA: WWW.XILABA.NET

Bertsulari Xapelketaren aurkezpenean Amets Arzallus, Zoe Bray, Joana Itzaina eta Maurice Agerretxe antolakuntza arduraduna.

daia), Gillen Hiribarren (Itxasu), Txomin Elozegi (Hazparne), Mattin Luku (Donibane Garazi), Ekhi Erremundegi (Baiona), Mixel *Xalbador* (Urepel), Eneritz Zabaleta (Baiona), Xan Alkhat (Armen-daritze), Maindi Murua (Azkaine), Bixente Luku (Donibane Garazi), Amets Arzallus (Hendaia) eta Sustrai Colina (Urruña).

LARUNBATEAN SARAN

Muskildiko lehendabiziko kanporaketaren ondotik, bigarrena Aiherran (Baxenabarre) joko-

tzekoa zen joan den asteburuan eta hirugarren eta azkena Saran jokatu da larunbat honetan, urriak 2.

Hiru kanporaketetik sailkatzen diren onenekin finalerdiak jokatu dira: urriaren 16an Luhuson (Lapurdi), 17:00etan Harri xuri aretoan, Amets Arzallus iazko txapelduna eta bertze bertz sailkatuak ariko dira lehen finalerdian. Urriaren 23an Gabadiko (Baxenabarre) Herriko gelan (17:00) jokatu den bigarren finalerdian, Sus-

trai Colina eta bertze bertz sailkatu ariko dira.

Final nagusia Donibane Lohizuneko pilotalekuan jokatu da azaroaren 13an, 17:00etan.

SARRERAK

Finalaurreko sarrerak lekuan berean salduko dira eta finalekoak aitzinetik eros daitezke. Aitzinetik 15 eurotan egun berean 18 eurotan. Bertzeak bertze, Senpereko Larraldean egonen dira salgai, eta bai Internet bidez ere: www.xilaba.net atarian.

KOMUNIKABIDEAK → ZALDIKO MALDIKO ELKARTEA

Lamien Urrezko Orrazia Nafarroako euskarazko hedabideentzat

Ttiti-Ttapa, Xorroxin, Karrape eta Xaloa sarituen artean

TTIPI-TTAPA

Zaldiko Maldiko Iruñeko elkarteak euskararen alde lanean aritzen diren pertsona, talde edo erakundeak sari-

tzen ditu urtero, Lamien Urrezko Orrazia sariarekin. Aurtun, Nafarroako euskarazko hedabideak saritu dituzte, «urte sail luzean egindako lana eta une honetan, diru-laguntza ofizialik gabe, aurrera ateratzeko egiten ari diren ahalegina» kontuan hartuz. Saritutako hedabideen artean daude **TTIPI-**



ARGAZKIA: NOTICIAS

Nafarroako euskarazko hedabideetako ordezkariak irailaren 23an hartu zuten saria.

TTAPA aldizkaria, Xorroxin eta Karrape irratia eta **Xaloa Telebista**. Baina bertze batzuk ere jaso zuten oroigarria eta saria irailaren 23an Iruñean: Guaixe, Belai-xe, Karrika, Xuka, Zorrokaria, Pulunpe, Esan-

erran, Mailope, Euskalerria Irratia, Aralar Irratia, Irtati Irratia, Nabarra...

Aldiz, kontrako saria ere ematen du Zaldiko Maldikok eta aurtun Asto Masto saria Euskarabideako Xabier Azanzari ematea erabaki du-

te, «Euskarabideak hasiera batean euskaldunen artean sorturiko itxaropena zapuztu duen pertsona izan delako, Nafarroako Gobernuaren euskararen kontrako politikaren kide baina izanik».

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

Urriaren 31n egingen da Euskara Mankomunitatearen Eguna

Erakundeak 20 urte bete dituela eta ekitaldiak antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 20 urte bete ditu aurten eta urteurrena ospatzeko, Mankomunitatearen Eguna antolatu dute urriaren 31rako Beran. Horrela iragarri zuten bortz herrietako euskara batzordekideek irailaren 22an Beran egindako prentsaurrekoan.

Agerraldian, Mentxu Peña Arantzako batzordekideak mankomunitatearen 20. urteko ibilbidea laburtu zuen: «Ofizialki 1990eko maiatzaren 18an sortu zen, egun horretan onartu baitziren estatutuak, eta batzordeak sortu. Halere, aitzineko urteetan egindako lana ezinbertzekoa izan zen mankomunitatea sortzeko». Gaineratu zuenez, «euskarakaren aldeko giroa eta



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Irailaren 22an emandako prentsaurrekoan Euskara Mankomunitatearen 20. urteko ibilbidea eta urriaren 31ko bestaren berri eman zuten bortz herrietako batzordekideek. Eguna iragarriko duen kartela Adrian Labadie etxalartarrak diseinatu du.

gogoia indartzen ari zen: euskarazko irakaskuntza, helduen euskalduntze eta alfabetatzea, TTIPI-TTAPA hiru-hilabeteak...». Testuinguru horretan hasi ziren bilzen Bortzirietako hainbat euskaltzale, euskarakaren aldeko lana egingen zuten tresna eta baliabideak eskainiko zituen azpiegitura bat sortzeko. Bizpahiru urteko gogoetaren ondortik, eta udalekin elkar-

lanean, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea sortu zuten. Geroztik, mankomunitateak Bortzirietako arlo guztietan eragin nahi izan du: kulturaren, familian, administrazioan, irakaskuntzan, ekonomian... helburua arlo guztietan euskarari sarbide ematea eta hizkuntzaren egoera normalizatzea baita. Arantzako batzordekideak erran zuenez, «zantalzarik gabe, euska-

rak aitzinera pausoak eman ditu 20. urteotan».

Halere, «euskarak Bortzirietan bide omen du egiteke», eta horretan lanean behar bezala aritzeko mankomunitateak ongi hornitua egon behar duela nabarmendu zuen Peña; «ongi hornitua giza baliabideekin –batez ere herritarren parte-hartzearekin–, eta ongi hornitua baliabide ekonomiko eta materialekin.

EGITARAUA

Mankomunitatearen Eguna

Urriaren 31ko behin betiko egitaraua oraindik prest ez badago ere, zenbait ekitaldi zehaztuak daude:

•**11:00etan**, Mukixuko zubitik Matzadara abiatu eta irudiaren ekitaldia. Futbol zelaian, 350 lagunekin logotipo erraldoia osatu nahi da, aurretik irudiak hartzeko. Bortzirietako euskaltzaleei dei berezia egin zaie ekitaldi honetan parte hartzeko.

•**12:30 aldera**, martxa jendetsua Matzadatik Altzatera. Bortzirietako hainbat taldek parte hartuko dute (musikariak, dantzariak...).

•**13:00etan** Altzateko plazan ekitaldia: Mankomunitatearen aldeko adierazpena irakurriko da. Ekitaldi horretan bertsolariek, bandek eta bertze zenbait taldek parte hartuko dute.

•**14:00etan** herribazkaria, Altzateko frontoian. Txartelak ohiko tokietan edo batzordekideengana joanez eskuratzen ahal dira. Helduen bazkariak 15 euro balio du, eta haurrenak 6 euro.

•**Arratsaldean** haurrentzako tailerrak, helduentzako jokoak eta zozketak, musika eta berbena izanen dira.

INGELESA eta FRANTSESA, IRUNEN

- Haur, gazte eta helduentzat
- Astean behin edo bi egunetan
- Cambridge-eko azterketen prestaketa
- Enpresentzako ikastaroak

LACUNZA

irunen: jose ramon agirretxe, l donostian: erdiakidean, amaran, grosen, benta berriñ

902 012 912 * www.lacunza.es

BERA

UDALA → MUGIKORTASUN ITUNA

Herrigunean orduko 30 kilometroko abiadura ez gainditzea proposatu da

Oinez eta bizikletaz ibiltzeko neurriekin Mugikortasun Plana aurkeztu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Herrian barna oinez edo bizikletaz mugitze-ko neurriak proposatzen dituen Mugikortasun Plana aurkeztu du Udalak. Crana Nafarroako Ingu- rumen Arloko Baliabide- en Zentroak eta Udala- ren arteko lankidetzaz da mugikortasuna ho- betzeko plan hau abian paratu duena eta Iruñe- ko Oraintxe enpresak idatzi du. Helburua argia da: oinez eta bizikletaz herrian ibiltzeko neurri- ak proposatu eta prakti- kan paratzea da. Iraila- ren 17an egin zen ituna- ren aurkezpena Herriko Etxean, baina gizarte era- gileek asteotan hartze- koak dira idatzia, sina de- zaten eta Udalak irail hon- darreko batzarrean onartzea espero da.

30 KILOMETRO ORDUKO GEHIENEZ

Herrigunean oinez edo bizikletaz ibiltzea sustatzeko neurri nagusi- artean, herrigune osoan ibilgailuen gehie- neko abiadura orduko 30 kilometrorra mugatzea

aurrekusi da. Oinezko- en eskubideak auto gi- darien eskubideen gai- netik paratu nahi dira horrela.

Horrez gain, eroske- tak egitea errazteko eta egun osoan autoa ber- tan ez uzteko helburua- rekin, Altzateko Plazan eta Kanttonberrin gehie- nez ordu eta erdiz apar- katzeko baimena utziko da. Bertze zenbait neu- rri ere proposatuko dira Ituneko ekintza planean, hala nola, kiroldegi aitzin- ean bizikletendako aparkaleku estalia egi- tea, oinezkoen ibilbideei espaloi bidez jarraipena emateko estudioa egi- tea edo Bortzirietan au- tobus zerbitzu manko- munatua gauzatzeko Udalak gestioak egitea Nafarroako Gobernuan.

Droga eta sexualitatearen informazio puntua

Droga eta sexualita- tearen inguruan sor dai- tezkeen zalantzak argi- tzeko informazio puntua urrian zabalduko da aur- ten ere. Halere, aldi hone- tan, egoitza berria estre- inatuko dute. Bukatu di- ra behin betiko egoitza izanen den tokiko obrak eta hemendik aitzinera Bekolandetan egonen da informazio puntua, Ezte- gara pasealekuan.

Urritik aitzinera, hila- beteko bigarren eta lau- garren ortziraletan ego-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Sute batek erabat kixkali du Txarandaka motorren denda

Irailaren 17an 21:00 aldera piztu zen sute batek erabat kixkali zuen Txarandaka motor enpresaren egoitza. Errepidetik igaro zen gidari batek ohartarazi zuen Nafarroako Larrialdien Zerbitzua, sua eta kea ikusi zuelako. Denera, 35 suhiltzaile joan ziren sua itzaltzera, Iruñea eta Oronoz-Mugairiko profesionalen gain, Lesakako eta herriko boluntarioak ere joan ziren eta suaren indarra ikusi- ziz, Irungoak ere bai. Larunbatean 01:30 aldera sua itzalitza eman bazuten ere, suhiltzaileek ura botatzeari utzi ziotenean, berriz ere sua ateratzen hasi eta badaezpada, 11:00 arte inguruan izan ziren. Txarandaka motor dendan, 300 bat ibilgailu zeuden, motoak eta quadak. Sua ez zen ondoko nabeetara hedatu, nahiz eta kanpokoaldea beltzatua gelditu zitzaien. Kezka sortu zen inguruan baitago olio industrialarekin lan egiten duen Verkolen lantegia. Iñaki Irigoien Garcia Txarandakako arduradunak duela sei urte inauguratu zuen duela bi aste kiskalita gelditu den gunea.



ARGAZKIA: GOIKO

120 dantzari gaztetxo Dantzari Ttiki Egunean

120 bat dantzari bildu ziren irailaren 18an, Gure Txokoa elkarteak hamaseiga- rren aldiz antolatutako Dantzari Ttiki Egunean parte hartzeko. Gure Txokoako hainbat adinetako zenbait talderekin batera, Andoaingo Urki eta Ibarako Alurr dantza taldeetako ttikiak beren saioak eskaini zituzten herri osoan barna kale- jiran. Azkenean, denak elkarrekin Altzateko Plazan bildu eta saio ederra eskai- ni zuten, eguna borobiltzeko.

nen da zabalik: 17:00 eta- tik 20:00etara. Egun ho- rietatik aparte, telefonoz (943 336080) edo Inter- netez (drogaklarrugorri- an@askagintza.com) ja- rri daiteke jendea ardura- dunekin harremanetan.



GIZARTEA → HAUTESKUNDEAK

Angel Ponbar izanen da Gure Txokoako presidentea

Zuzendaritza batzordea berritu dute elkarteak

TTIPI-TTAPA

Hasierako aurreikuspen beltzak ez ziren beste eta irailaren 17an egindako batzarrean, zuzendaritza batzordea berritzea lortu zuen Gure Txokoako elkarteak. Egia da ez zela bazkide aunitz bildu: 1.300etik 30 bat bertzerik ez. Baina joan zirenak lanerako gogoz bildu ziren eta batzuk, gaur egungo batzordeari erreleboa emateko prest. Honela, heldu diren lau urteetan Angel Ponbar izanen da Gure

Txokoako presidentea; Angeltxo Aranibar eta Jabier Etxegarai presidenteordeak; Aloña Lasaga eta Jorge Arakues izanen dira idazkariak eta Ainhoa Irazoki diruzaina.

Hauek izan dira lau urteotan aritu diren batzordekideen egiteko batzuk: elkartearen 75. urteurrena, lamoteneako erreforma, Matzadako argiteria berria, hobekuntzak ostatuan... Futbol talde berriak ere sortu dira eta dantza taldearen antolakuntza ere nabarmendu daiteke. Denbora honetan, lanean aritu direnei ere eskerrak eman nahi izan dizkiete: Luis Irazoki, Luis Mari Retege, Joseba Lasarte, Maria Barredo, Jon de la



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herriko Etxeko ganbara eta bigarren solairua moldatzen ari dira

Herriko Etxeko bigarren solairua eta ganbararen berritze energetikorako eta hornidurarako lanetan ari dira. Udalak sustatutako lanak 93.960 euroko aurrekontua du eta osorik Espainiako Gobernuak ordainduko du. Josu Irtzoki alkateak aipatu digunez, lan hauekin Herriko Etxearen teilatua berritzeaz gain, hobeki isolatuko da, bi solairuetako leiho eta ateak aldatuko baitira, beti ere energia aurrezteko helburuarekin. Gorritz eraikuntza enpresa ari da lanean. Bestak bukatuta hasi ziren eta lanak hilabete hondarrerako bukatzea espero da.

Kruz, Aritz Perez, Lurra-
ren Eguneko lan taldea,
Patxi Pikabea, Sabino
Gomez...

Larun Ttikiren ateraldiak

Aurten ere, mendi irteerak antolatu ditu Labiaga Ikastolako Larun Ttiki mendi taldeak 3. mailatik aitzinerakoentzat. Lehen ateraldia irailaren 26an egitekoa zu-

ten Idoiarat eta hurrengo igande honetan, urriak 3, egingen dute: Bera-Labiaga-Lizaieta. 09:00etan abiatuko dira lamoteneatik eta gurasoak joatea ez da beharrezkoa izanen. Urriaren 10ean, berriz, bizikleta irteera egingen dute 09:30ean lamoteneatik abiatuta. Ttikienak Enderlatsara eta handienak Punttaseraino joanen di-

ra. Urriaren 31n lamoteneatik 09:00etan abiatuko dira Santa Barbarara joateko. Ondotik, Euskara Mankomunitatearen 20. urteurreneko besta denez, Matzadara jaitziko dira argazki erraldoia ateratzeko.

Horiek dira urrirako iragarri dituzten ateraldiak, baina azaroan eta abenduan ere gehiago izanen dira.



Mar tzu tzak
Bera burutik hanketaraino
Eztegara 12 BERA
Tel: 948 631 425

berrikuntza |

OSPAKIZUNETARAKO, EZKONTZETARAKO... MODA

- Soinekoak, boltsoak • Bisuteria
- Tokadoak, diademak eta mota guztietako ile-apaingarriak





berrikuntza |

Deigual haurrak



berrikuntza |

Janira
gerriko erreduktorea



Aprobetxatu guttiago ordaintzeko!
Urrian zehar egiten dituzun erosketekin batera **deskontu-txartela** hartuko duzu, **%10eko deskontua** erkin, azaroaren 15etik 30era erabiltzen ahal duzuna edozein erosketa egiteko.

etorri eta ezagutu! GURE NOBEDADEAK MODA ETA OSAGARRIETAN

LESAKA

TURISMOA → ABUZTUAREN 10ETIK IRAILAREN 12RA

158 bisitari izan zituen hilabete batean Turismo Bulegoak

Bartzelona eta Nafarroakoak izan dira turista gehienak eta egunik jendetsuenak abuztuaren 19 eta 26 artekoak izan ziren

Aitor AROTZENA

Uda honetan, Burdinaren Etxean zabalik egon den hilabete eskasean, abuztuaren 10etik irailaren 12ra, 158 bisitari jaso ditu Turismo Bulegoak. Bisitari horietatik %31,65ak Burdinaren Etxeko erakusketa ere bisitatu dute. Belen Mutuberrria kultur teknikariak aipatu digunez, «jatorriari dagokionez, gehiengo Bartzelonatik (%17,72), Nafarroa (%17), Bizkaia (%10), Murtzia (%8,2) eta Gipuzkoatik (%7,6) etorri da». Gehien bat familiek eta bikoteek, eta bigarren maila batean lagun taldeek, eskatu dute herriarekin, eskualdearekin, ibilbideekin edo gastrono-

miarekin lotutako informazioa.

Epaiketa

Urriaren 25etik 29ra epaituko dituzte Donostian Igor Portu eta Marttin Sarasolaren atxilotetan parte hartu zuten 10 guardia zibil. Horietako lau torturengatik epaituko dituzte (birentzat 3 urteko eta bertze bientzat 2 urteko kartzela zigorra eskatzen du fiskalak) eta bertze seiak lesioengatik. Bi lesakarrak egun bakarrean, 28an, izanen dira Donostian eta herrian zenbait mobilizazio eta Donostian manifestazio nazionala antolatzeko asmoa dago.

Irakurketa eta zinema

Urriaren 2an, larunbatean 19:30ean, Gabrik Garcia Márquez-en *La increíble y triste historia de la cándida Eréndida y de su abuela desalmada* liburua aztertuko du Beti Gazten irakurketa taldeak. Ondoren, Christopher Barratierren *Los chicos del coro* filma eskainiko da.



ARGAZKIAK: PACO SANCHEZ

207 txirrindulari mendi bizikleta ibilaldian


207 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 19an Beti Gaztek Udalaren laguntzaz antolatutako Mendi Bizikleta Ibilaldian. Eguraldi ederra izan zuten lagun, frexkoa goizean abiatu zirenean, lehen maldei indarrez ekiteko eta goxoa behelainoa uxatu eta goitiko kaxkoetan barna ibili zirenean. Euskal Herri osotik etorritako txirrindulariek, ibilbidearen edertasuna eta ikusgai izan dituzten bixtak azpimarratu zituzten. Jakina, proba ez da lehiakorra, baina bada lasterketa moduan bizi duenik ere. Horien artean, 50 kilometroko ibilbide luzea osatzen azkarrena Brasilen sortu eta Gipuzkoan bizi den Ekleyson Marques da Silva izan zen, Joxe Mari Goia igantziarraren aitzinetik. Erorikoren bat izan bazen ere, antolatzaileek prestatutako osasun zerbitzuek ez zuten aparteko lanik izan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Giro ederra aurten ere Bittiriako bestetan

Auzoko korrikalarien arteko apustuak ikusmina sortu zuen Bittiriako bestetan. Bi hirukote erreleboka aritu ziren, eta gazteen taldea (Beñat Saralegi, Mikel Apeztegia eta Martin Antzizar), nagusitu zitzaion zaharren taldeari (Juanen Saralegi, Aitor Mitxelena eta Roberto Rodriguez). Ikusle aunitz bildu zen eta animazioa jartzen lagundu zuen Diego Martinez artekariak ere. Joxe Angel Zubiriak bete zuen epaile lana. Ondotikan giro ederra izan zen auzo bazkarian, Jon Maia, Josu Sanjurjo eta Mañukorta bertsolarien laguntzarekin. Ortziraleko trikitixa txapelketan Miren Etxepeteleku eta Mikel Sanchez nagusitu ziren eta tortilla lehiaketan, Jon Garro eta Jone Ordoki.



EHIZA → USATEGIAK

Postuen enkantetik 27.382 euro hartuko ditu Udalak

Sestarekin hiru postu hobetu dira

Iruñe eta Itsaso

Irailaren 11n egin zen larmendiko barruti pribatuen dauden uso ehizako postuen enkantea eta 17a arte izan zen sesta emateko epea. Horren ondotik taulako prezioetan gelditu dira postuak.

Ikastaroak

Ikasturte berriarekin batera ikastaro hauek hasiko dira herrian: trikitixa (Iñe Elgorriaga), kenpo (Modesto), frantsesa (Yasint), ingelesa (Roger), musika eta mugimendua (Maite), pandereta (Alaitz eta Maitane), perkusioa (Iruñe eta Itsaso), futbola (Vicente), patinaia (Iñe Bizente), katekesia (Pello eta katekistak),



ARGAZKIA: ITSASO ETA IRUÑE

Pasatu dira Urritzokietako bestak

Eguraldi ederra lagun, giro politean joan dira aurtengo Santa Krutzak. Antolatzaileak kontent agertu dira ekintza guztiak arrakastatsuak izan direlako. Santa Krutz eguneko afarian eta txokolatadan 20 bat lagun bildu ziren, igandeko Asauan 70 inguru eta afarian, berri, 40 bat lagun.

euskal dantzak (Altxata-Anabel), pilota (Altxata-Joxe Mari) eta euskal dantzak (Altxata). Aurtengo berrikuntzak frantsesa eta futbola dira.



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN

Arkupeko mus txapelketako irabazleak

Santiago Olasagasti eta Daniel Iparragirrek irabazi zuten abuztuaren 27an Hondarribian jokatu zen Arkupeko mus txapelketa. Santiago eta Danielek 4-5 urte dituzte elkarrekin jokatzeko eta bi txapel irabazi dituzte Larraburuan eta hau izan da hirugarrena; herriko kanpo lehendabizikoa. Hauetaz gain, lehenago Larraburuan irabazitako bertze hiru txapel ere badiu Santiagok. Arkupeko txapelketan jokalaririk finak direla garbi utzi dute bartz partida irabazita, nahiz eta zenbaitzuren kontra juxtu xamar ibili.

2010EKO EHIZA GARAIA

POSTUAK	TASAZIOA	TANTOAK	HARTZAILEA	ERREMATEA
6	1.555 €	-	Etxalarko ehiztariak	1.555 €
7	2.000 €	-	J.M. Telletxea (Bera)	2.000 €
8	2.960 €	-	J. Ithurralde (D. Lohizune)	2.960 €
9	2.020 €	-	Tecniagua (Iruñe)	2.020 €
10	2.020 €	-	M. Martinez (Bera)	2.020 €
11	2.960 €	-	M. Altuna (Donostia)	2.960 €
12	1.320 €	67	J. Iriarte (Bera)	3.742 €
13	1.320 €	33	J. Noble	2.915 €
14	830 €	22	G. Lestuzzi (Etxalar)	1.050 €
16	830 €	-	J. Toledo (Etxalar)	830 €
17	830 €	20	J. Toledo (Etxalar)	1.030 €
18	830 €	-	G. Diaz (Donostia)	830 €
19	830 €	9	E. Artola (Oiartzun)	830 €
20	1.320 €	-	L. M. Urioste (Ibarra)	1.320 €
21	1.320 €	-	J. A. Aginagalde (Etxalar)	1.320 €
GUZTIRA	22.945 €			27.382 €

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

udana
salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
ESTABLECIMIENTO DE CALIDAD DE PRODUCTOS DE ALUMINIO
SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatuak, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tinoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

ERROTAZAR
harategia
Bertako produktua

Etegarra, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

IGANTZI

UDALA → HIRIGINTZA PLAN BEREZIA

28 iradokizun aurkeztu zaizkio hirigintza plan berriaren zirriborroari

Herritarren iritzia eta Udalak dioena kontuan hartuz plan ofiziala egingen da

TTIPI-TTAPA

Lurzoru urbanizagarran eta urbanizaezinean etxebizitzak egiteko hirigintza plan berezia egiteko prozesuak aitzinera segitzen du. Patxi Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoek planaren zirriborroa egin ondotik, herritarren iritzia bildu nahi izan zuen Udalak eta nahiz eta balio legalik ez izan, jendaurrean paratu zuen zirriborroa. Abuztuaren 31n bukatu zen iritzia emateko epea eta 28 iradokizun aurkeztu ziren.

Iñaki Goienetxe alkateak TTIPI-TTAPAri adie-

razi dionez, «iradokizun gehienetan, euren lurretan ere etxebizitzak egiteko eskubidea emateko eskatu dute». Iradokizun horiek guztiak arkitektoei bidaliko zaizkie, eta horrekin eta Udalak erabakitzen duenarekin egingen da plan ofiziala. Behin plan ofiziala ateratzen denean, jendeak orduan izanen du alegazioak aurkezteko aukera.

ETXEA EGITEKO BAIMENIK GABE

Etxebizitzak egiteko hainbat eskaera ukatu izan dira azken aldia herrian, eta horri aterabidea emateko hasi zen Udala plan berezi hau garatzen.

Herrigunean 50 etxetik goiti egiteko aukera egon arren, «arrazoi bategatik edo bertzeengatik jendeak ez zuen etxerik egiten herrigu-



ARGAZKIA: LAURA IANTZI

Gipuzkoako Artzain Egunean omendu dute Elias Uitzu

Urtero Ameriketara ibilitako euskal artzainak omentzen dituzte Gipuzkoako Artzain Egunean, eta aurtengoan, irailaren 5ean Legazpin egindako bestan, igantziar eta lesakar bat izan ziren omenduar: Antsolazenbordako Elias Uitzu eta Lesakako Elordi baserriko Matias Telletxea. 1965eko abenduaren 28an hartu zuen AEB-etarako bidea Eliasek, 41 urte zituenean. Baserria erosteko aukera bakarra artzain joatea zela-eta, emaztea eta 13 eta 3 urte bitarteko lau seme-alaba utzita joan zen. Orduan joan zen Jose Luis Antxordoki herritarra ere, 18 urte zituela. Hasiera batean, hiru urtetarako joan ziren, baina egonaldia luzatu eta azkenean lau urte pasatu zituzten. Tarte horretan, 2.000 ardiren ardura eduki zuen Antsolazenbordakoak. Etxean 100 bat ardirekin lan egitera ohituta bada aldea... 1969ko ekainaren 24an, San Juan Egunean, itzuli zen herrira Elias.

nean eta herrigunetik kanpo hasi zen», dio alkateak. Herrigunean baimena ematea Udalaren eskumena da, baina herrigunetik kanpokoa Nafarroako Gobernuak hartzen du bere gain. «lehen 1.500 metro koadroko lur eremua izatea nahikoa zen, orain bi urte baimenak ukatzen hasizen arte». Goienetxek erran digunez, «etxea egiteko asmoarekin baimenik gabe gelditu da jendea, lurra erosia, proiektua egina...». Eta

plan horrekin irtenbidea nahi dute, «herriko gazteak guttienez, izan dezala bertan gelditzea aukera», gaineratu du.

Zirriborroan jendea iri aurkeztu zaionaren arabera, 200 etxebizitzak egiteko modua egon litzateke plan berri honekin, baina alkateak garbi utzi nahi izan du hori «gehiegizkoa» dela eta «denen artean ikusiko dugu noraino ailegatzen garen».

Gaia «korapilatsua» dela badaki Goienetxek,

baina legealdia bukatu aitzinetik plana onartzea gustatuko litzaiokio.

Proiektu turistikoa Irisarrin

Irisarri baserrian proiektu turistiko bat garatzeko asmoarekin dabil Igantziko Harrobia enpresa. Oraindik ez du proiekturik aurkeztu, baina Udalarai aitzineratu dionez, 20 gelako hotela eta bezeroentzat inguruan jarduera osagarriak egin nahi ditu.

carnha
goitegia oindegia

7^o de castiella 25 bajo 1948 63 08 99
4700 Bera (Navarra) www.sarobe.net

Fructos
Verduras
E. BANDOÑA, ILL.
FRIGIFEROS DE CALIDAD

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

PRIM, c.b.
Biskortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJAN

zalain
JATEETxea - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
W. www.zalain.com

zalain

UDALA → NAFARROAKO GOBERNUTIK DIRULAGUNTZA

25.839 euro hartuko ditu Udalak abeltzaintzako azpiegiturak moldatzeko

Lau auzoetan eginen dira lanak

Nerea ALTZURI

Abeltzaintzako zenbait azpiegitura konponatzeko dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Udalari. Zehazki, 25.839,46 euro bideratu ditu, 47.499,42 euroko aurrekontuarentzako.

Aientsa, Azkilarrea, Eguzkialdea eta Bordalarrea auzoetan eginen dira lanak: gaizki dauden bide zatiak moldatu, eskoilerak egin, uraren hodiak konpondu...

Kultur Egunak azaroan

Uruti ematen bazuen ere, urteko azken egunetan sartzeaz gaude. Udazkenean izanik, Kultur Egunez ez dute hutsik egiten aurten ere.

Irailaren 17an bildu zen Euskara Batzordea eta erabaki zenez, azaroko lehenbiziko asteburuan eginen dira Kultur Egunak: azaroaren 5ean eta 6an. Oraindik ez dira ekintzak zehaztu eta informazioa jaso ahala emanen dugu. Bertalde, urtero bezala, Ekaitza Elkarteak azaroaren 1eko Baserritarren Eguna prestatzen ari da.

Goizuetarrak mendiz mendi

Bi urtetik behin, Ekaitza Elkarteak antolatuta Goizuetara mendi ateraldia egiten da. Oinez harat ailegatu eta goizuetarrek elkartean bazkaria ematen dute. Baaldi honetan, goizuetarrek bisita itzuliko dute. Larunbat honetan, urriak 2, Goizueta-Arantza ibilbidea eginen dute eta elkartean bazkaldu.



ARGAZKIA: I. UGALDE

Herriko dantzariak Leitza Nafarroako Dantzarien Biltzarrean

Irailaren 11n dantzariak hitzordu garrantzitsua izan zuten Leitza, Nafarroako Euskal Dantzarien Biltzarrean. Tartean herriko 19 dantzari hiru txistularirekin herriko berezko dantzak egin zituzten. Batzuk parte hartu ezin izan bagenuen ere, herriko ordezkaritza han egon zen kultur ondare preziatuak diren Mutildantza, Zortzi-koa, Neskadantza, Hiru Buelta-koa, Sokadantza eta Zubidantza dantzatzeko.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Itsasbidaia Baltikoan barna

Horrelako aukerak ez dira maiz izaten. Eta izaten direnean, batzuek aprobetxatu egiten dituzte. Aurten Martin Legarra herriko apezka antolaturiko bidaiari 54 lagunek parte hartu dute, eta tartean hamar herritar ibili dira, Baltikoko hiriburuetan barna, itsasbidaiari edo kruzeroan. Danimarka, Polonia, Lituania, Suezia, Estonia, Errusia eta Finlandia herrialdeetan ibili dira, geldialdiak eginez. Itsasoko egonaldia ederra izan omen da eta hagitz ongi pasatu omen dute. Urriaren erdialdera bidaiari egon direnak biltzeko asmoa dute hainbat material ikusteko.

Sistemas de Oficina del Bidasoa S.L

- Zerbitzu teknikoa / Servicio técnico
- Kontsumibleak / Consumibles
- Multifuntzioak / Equipos multifunción
- Ekipo informatikoak eta sareak / Equipos informáticos y redes

Canon
Centro Canon Autorizado



Santiago kalea, 7 • 20304 - IRUN • 943 631 818 • info@cbc-bidasoa.es

SUNBILLA

ERREPIDEAK → GOBERNUAREN AZKEN OHARRA

Bidegurutzean erdiko karrila egiteko asmoa baztertu egin du Gobernuak

«Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den alternatiba» bilatuko omen du Herrilan Sailak

Itxaso ARRIETA

Maiz izan dugu azken aldian bidegurutzearen gaia hizpide. Baina aldi honetan ere bada horren inguruko berri bat: bidegurutzean aurreikusia zegoen itxaroteko erdiko erraila egiteko asmoa baztertu egin du Nafarroako Gobernuak Herrilan Departamentuak. Herritarrek errepide nagusiaren bertze maila batean egitea nahi dute, azpiko aldetik edo gaineko aldetik, eta horri erantzuteko «teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den alternatiba» bilatuko dutela jakinarazi du Laura Alba Gobernuak Herrilan kontseilariak.

Irail hasieran, Doneztebeko IAT zentroaren inaugurazioan egingo dako protestek eta Pako Errandonea alkateak eta Miguel Sanz Nafarroako Gobernuak presidentea izandako solasaldiak ondorioa izan dutela dirudi. Orduan, presidentek herritarren borondatearen

kontrako proiekturik ez zela egingen aipatu omen zion alkateari. Erdiko karrila abudo samar egiteko modua izan arren, sarrera-irteerak bertze maila batean eraikitzea diru-baliabideen araberaren egingen da. Alkatea lanak lehenbailehen egitearen alde dago, «baina segurtasun gehiago izanen badu, esperoan egoteko prest gaude. Baina beti erran dugu dirua gastatzen hastekotan, gauzak ongi egin eta betirako soluzio duin bat nahi dugula».

URRIAREN 7KO MOZKETA ZALANTZAN

Soluzio duin horren alde hurrengo errepide mozketaren 7rako hitzartua dago, baina Iruñetik emandako azken erantzuna ikusiz, lerro hauek idazterakoan oraindik erabaki ga-bea zen egin ala ez.

Ulibeltzak Elkartearen oharra

Bestetako programan argitaratu zen laguntzaileen zerrendan aipamenik egin ez zitzaizkien laguntzaileei barkamena eskatu die Ulibeltzak Elkarteak. Amaia Ileapaindegia, Fonda ostatua eta Zaldua izan ziren agertu ez zirenak.

Bidebatez, eskerrak eman nahi izan dizkie bestetan laguntza eman



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ehunka lagun Artzain Amerikanoen Egunean

Ehunka artzain bildu ziren irailaren 18ko Artzain Amerikanoen Egunean. Bestak ez zuen eguraldiaren arrenkurarik izan eta 10:00etarako hasi ziren artzainak ailegatzeko. Aurtengo omenaldia, bertzeak bertze, Basilio Sarobe apezari eskaini zitzaion eta honek, begiak busti-busti zituela jaso zituen oroigarriak. Berekin batera, Artzain Munduko laguntzaile izandako Miren Elgarresta eta Jesus Goldaraz zenaren senideek jaso zuten omenaldia. Herriko Etxe ondoan jarritako ogoigarri ederra ere agertu zuten agintariek. Aspaldiko partez, ahari jokoa ikusteko modua izan zen. Herriko dantzariak, artzainak atera zituzten dantzara eta, *highball* famatuarekin zintzurra bustitzeaz gain, salda eta pintxoak jateko aukera ere eskaini zen. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak ere ederki gozarazi zituzten artzainak. Sunbillatik 313 artzain joan omen ziren Ameriketara XX. mendean. 98 oraindik bizi dira, eta horietatik 49 AEBetan laketu eta han bizi dira. Baina zenbaki horien gibelean, istorio gogorak ere badira. Erraterako, Jorajuriatarrena. Bederatzi senide joan ziren Ameriketara. Horietatik bi, Juan eta Jose han hil ziren: Juan kapar batek hautsiki egin eta zauria gaiztotuta; Jose trafiko istripuan, bertze lesakar batekin. Bertze bi, Fidel eta Ramon, oraindik AEBetan bizi dira, baina Ramon Sunbillan izan zen irailaren 18an, espreski etorrita. Gainerako bortz anaia, Mario, Santos, Jose Mari, Julio eta Jesus Mari aspaldian bueltatu ziren Ameriketatik eta irailaren 18ko ospakizunean, ez zuten hutsik egin. Besta eguna akitzeko, frontoian bazkaltzera 700 bat lagun bildu ziren, eta giro ederra izan zen bazkalondan ere.

zuten guztiei: Maria Jesus harategia, Marisol denda, Amaia Ileapaindegia, Ariztigain kanpina, Ruiz denda, Zaldua, Kontxa gasolindegia, Itturburu ostatua, Fonda ostatua, Sasoi Eskabazioak, Lizun gaztandegia, Renault, Oreberri okindegia eta Udala. Bestetako ekitaldietan parte hartu eta lagundu zuten guztiak ere esker-tu nahi izan ditu Ulibeltzak Elkarteak.

LEGARRA

● EGUNKARIAK	● FOTOKOPIAK
● ALDIZKARIAK	● ENKUADERNAZIOAK
● LIBURUAK	● PLASTIFIKAZIOAK
● OPARIAK	● FAX PUBLIKOA
● TABAKOA	

TESTU LIBURUAK ENKARGUZ

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

DONEZTEBE



KIROLA → SORTU ZENETIK ZAZPI URTERA

Neska-mutil aunitz mugituko ditu denboraldi honetan Doneztebe Futbol Taldeak.

166 jokalaria eta 10 talde izanen ditu denboraldi honetan Futbol Taldeak

Guraso talde baten ekimenez sortu zen kluba 2003an

ri izan ziren; 2006/2007-an 78 jokalaria; 2007-/2008an 124; 2008/2009-an 129; 2009/2010ean 147 jokalaria eta denboraldi honetan hamar taldetan 166 jokalaria izanen ditu. Hain zuzen, hilaren 17an egin zuten denboraldiko aurkezpena. Aurtan, gainera, lehen aldiz, neskak ere futbol-11n ariko dira, azken urteetan futbol-7an eta areto-futboleant ibili ondotik.

TTIPI-TTAPA

Urteekin indartzen ari da Doneztebe Futbol Taldea, eta 39 jokalarirekin hasi zen taldea izatetik, 166 jokalaria eta hamar talde izatera pasatu da.

Kluba 2003an sortu bazen ere, kirol ibilbidea 2004 bukaeran hasi zuen. Geroztik haundituz joan da: 2005/2006 denboraldian 67 jokala-

Aparan inguruan futbol-zelaia eraikitzeko lehen urratsak eman dira, eta hurrengo denboraldia zelai berrian hastea

litzateke Futbol Taldearen ametsa, baina bitartean, etxeko partidak Elizondo, Uharte eta Taxoaren jokatuak dituzte.

Erreka Elkartearen ereserkia egiten

34 urte bete ditu aurtentzen Erreka Kirol Elkarteak, baina ez du ereserkirik izan inoiz. Orain bada, hori dute helburu elkartearen eta horretan ari da lantalde bat. Aipatu, bertalde, sortu zenetik bi urtera, 100.000 bisitak gairiditu dituela blogak www.erreka.org.

Denboraldi berriari begira, berriz, urriaren 16an hasiko dute Erreka eskubaloiko taldeek liga, biek etxetik kanpo. Erreka A Tuteran ariko da Bardenas taldearen kontra. Erreka B, aldiz, Burlatan, Burlada B taldearen kontra.

Turismo Bulegoa

Uztailean hasi bazen ere, Gobernuaren Turismo zuzendari nagusia eskualdera etorria zela aprobetxatuz, lehengo autobus geltokian dagoen Turismo Bulegoa bisitatu zuten Gobernu eta udal ordezkariak irailaren 10ean. Bulegoko ordutegiaren gain, eguneko 24 orduz kontsulta daiteke informazioa, kanpoan

ukimen pantaila bidezko ordenagailua baitu.

Udan Virginia Fernandez aritu da bulegoan eta, dioenez, «abuztuan eguneko 50-60 bat bisitari izan ditugu, baina irailaren jautsi egin da. Gehienbat bazkaltzeko toki eta Malerrekako baliabideez galdezka etortzen dira, Zubietako errota, Donamariako Jauregia, Leurtzako urtegiak...».



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Bertiz BTT enpresaren inaugurazioa

Bizikletaren munduarekin lotura zuzena duen enpresa berria zabaldu dute Ameztiaok: Bertiz BTT mendiko bizikleta zentroa. Irailaren 10ean inauguratu zuten Nafarroako Gobernuaren ordezkariekin batera. Bizikletak alokatzen dituzte eta 500 kilometro baino gehiago duten 12 ibilbide egin dituzte, GPSan eta kartografian bilduak. Hiru lagun aritu dira horretan sei hilabetez: Patxi Irazoki, Cristina Arbues eta Alvaro Goñi. Lokalean dutxak, tailerrak, materiala, etxera itzultzeko furgoneta... eskaintzen dituzte. Bertakoeentzako hilabetero ateraldiak antolatzeke asmoa dute.



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Erreka dantzariak Leitzan

Irailaren 11n Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna egin zen Leitzan, eta Erreka dantzariak ere ez zuten hutsik egin.

F. LANCHAS

Akudalazioa eta berriztatzea
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

ITUREN

NAFARROAKO GOBERNUAK → KULTUR EKINTZENTZAKO DIRULAGUNTZA

991 euroko dirulaguntza eman dio Euskarabideak Ibintza Kultur Taldeari

Nafarroa osoan 32.000 euroko laguntza eman du

Arkaitz MINDEGIA

Euskarabidea Nafarroako Euskararen Institutuak 32.000 euroko laguntza eman du aurtien euskarazko kultur-jarduerak egiteko eta euskara interneten sustatzeko. Kopuru horretatik 28.058 euro kultur-jarduerak euskaraz garatzen dituzten Nafarroako 37 entitateentzat izan dira, eta Ibintza Kultur Taldeari ere zati bat egokitu zaio. Zehazki, 991,74 euroko dirulaguntza hartuko du.

Hoditeria berritzen

2009-2012ko Toki Inbertsioaren Planaren barrenean, hoditeria nagusia berritzeko lanak egiten ari da Udala, biltegitik sareraino. Lana Sasoi eskabazioa egiten ari da eta Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren bidez,

aurrekontuaren %60-arentzat subentzioa hartuko da.

Joakin Aioroa bikain

Urte gutti daramazki Joakin Aioroak herri kiroleetan ingudearekin. Baina, hasi zenetik bere trebetasuna erakusten ari da. Sanferminetan Nafarroako txapeldun gelditu zen ingude altxatzen eta orduan lortu zuen Zazpi Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketan Nafarroa ordezkatzeko txartela. Berriki jokatu da aipatu txapelketa eta guttiatik baina bigarren gelditu da. Zorionak! Txapelketa honen inguruko xehetasunak kirolen atalean aurkituko dituzue.

San Martinetako prestaketak

Oraindik hilabete bat falta bada ere, aurtiztarrrak hasiak dira dagoeneko San Martin bestak prestatzen. Azaroaren 10etik 14ra izanen dira.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Giro ederrean Joaldunen Eguna

Hutsik egin gabe, aurtien ere Joaldunen Eguna antolatu zuten joaldunek eta Ibintza Kultur Taldeak elkarlanean. Goiz-goizetik hasi ziren joare soinuak hedatzen eta abudo hasi ziren behelainoa uxatzen ere, eguzki goxoari leku emanez. Goizeko ohiko bueltaren ondotik, jendetza bildu zen plazan Larretxea eta Nazabalen arteko lehia ikustera. Hortik aitzinera, besta gaueko ordu tikiak arte luzatu zen.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

J.RAMOS
zolak akutzilatu eta barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 64 474

ZUBIETA

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

Egitarau osatua prestatu dute gazteek larunbateko Euskararen Egunerako

Ostiralean, pintxo lehiaketa eta mus txapelketa izanen dira

Fermin ETXEKOLONEA

Hutsik egin gabe, aurten ere urriko lehenbiziko larunbatean Euskararen Eguna egingen da. Egitarau konpletoa prestatu dute gazteek, ostiralean hasi eta larunbatean segitzeko.

Ostiral arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. 19:00etan pintxo lehiaketa egingen da Errandonea ostatuan, eta toki berean baina 22:00etan, mus txapelketa jokatuko da.

EGUN HAUNDIA LARUNBATEAN

Goizean, 10:00etatik aurrera, herriko artisauek euren produktuak aterako dituzte. Zurgin-lanak, oihalarekin egindakoak eta beste-lako gaiak nola lantzen dituzten ikusteko aukera izanen da.

10:30ean trikitilari eta joaldunek herrian barrena itzulia egingen dute giroa alaitzeko.

12:30ean emakumezkoen herri kirolak izanen dira eta 14:00etan herri bazkaria Joxe Agirre eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Herri bazkarirako menu hau aukeratu dute gazteek: hasteko pateak, zainzuriak, urdaiazpikoa eta bakailao tortilla, ondotik, txuleta entsaladarekin eta postretarako sagar tarta eta izozkia. Horiez gain, kafea eta kopa ere bai.

Asteazkena, hilak 29, da bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna. 25 eurotan okindegian, Errandonea ostatuan eta Herriko Ostatuan egon dira. Egun horretatik aurrera apuntatzen denak bost euro gehiago ordaindu beharko ditu.

DATUA

5

EURO

gehiago ordaindu beharko ditu herri bazkarirako irailaren 29a baino beranduago apuntatzen denak.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Herri sarrera berritua

Herri sarrerako zubian egin diren konponketa lanak akituak izanen dira aldirak haur argitaratzerako. Espainiako Gobernuaren Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtzaren Programaren bidez, 33.945,60 euroko dirulaguntza eman zen eta horrekin zubian hormigoia bota da eta horrez gain, herri bazterretan hondatutako losak ere moldatu dira. Duela bi aste hasi zituen obrak Narbarteko Iriarri enpresak, eta joan den astean azken erremateak egiten ari zen.

Bazkalondoan, trikitipoteoa egingen da bertsolariekin eta 17:30ean txokolatada eskainiko da. Beranduago, 20:00etatik 22:00etara, Garraxi taldearekin dantzaldia izanen da. Tartean, 20:30 aldera, urdaiazpiko eder bat zozketatuko da.

Rock musika gustuko dutenek, berriz, 23:00etatik aurrera, kontzertuak izanen dituzte Mugalariak eta Askatu taldeekin. Akitzean, 01:00 inguruan, Garraxi taldearen saioa hasiko da berriz.

Gisa guzietako ekitaldiekin heldu da Euskararen Eguna. Ea dena ongi ateratzen den.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

616 513 497

Pitti ESKABAZIOAK

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 30 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Ameztia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → ITTURRENDO ELKARTEAK ANTOLATUA

Zazpigarren Urriruko Besta eginen da urriaren 9an

Afariko txartelak hartzeko azken eguna igande hau izanen da

Amaia MINDEGIA

Aurten zazpigarren urtez, Itturondo elkarteak Udalaran laguntzarekin, besta antolatu du urriaren 9rako, *Urriruko besta* deitua.

Arratsaldean ematen zaie hasiera ekitaldiei. 17:00etatik aitzinera inguruko artisauek euren lanak erakusgai paratuko dituzte plazan. 18:00etatik aitzinera Zubietako Joaldunak karrizak ibiliko dira giroa animatzen.

19:00etan herri kirolek hartuko dute protagonismoa: harri-jasotzailea eta aizkolariak.

06:00ETATIK ERRETZEN ARI DEN ARETzea AFALTZEKO

Jaime Mindegia goizean 06:00etan prestatzen hasitako afariaren txanda izanen da ondotik. 06:00ak geroztik erretzen dagoen aretzea dastatzeko aukera izanen da hurbiltzen direnentzat. Kanalean 200 kilo pisatzen dituen aretzea prestatuko da, eta 21:00etarako prest egon beharko du. Aurten, urtero bezala, karpa barruan izanen da, eta platera mahaian egonen



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIA


Arratsaldean artisauek erakusketa izanen da eta gauean aretzea izanen da afaltzeko.

da. Afarian, aretzeaz gain, salda, entsalada, fruta, gazta, irasagarra, eta edariak behar diren guztiak izanen dira, baita kafea eta kopak ere. Guztira 200 lagunendako afaria izanen da, muga kopuru horretan mugituko delakoz.

Afaltzeko orduan zozketa bat eginen da, Nafarroako eta nola ez, Labaiengo produktuekin. Eta Frantxixko akordeoilariak alaituko du gaua. Herritar gehienak ez ezik, inguruko herrietatik ere jende andana hurbilduko da Bein-

tza-Labaienera egun horretan.

Afarirako txartelak Itturondo elkarteak, Herriko Ostatueta eta Baleztena dendan egonen dira salgai. Erosteko azken eguna urriaren 3a, igande hau, izanen da.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

OSPAKIZUNAK → TURISMOA

Onddo eta Zizen Kofradiaren egun haundia egingen da igande honetan

Larunbatean kazuela lehiaketa egingen da

TTIPI-TTAPA

Aitzineko urteetan bezala, eta garaia ailegatzearekin batera, Onddo eta Zizen Kofradiak antolatutako ospakizunek ez dute hutsik egingen. Asteburu honetan izanen dira.

Larunbatean, urriak 2, kazuela lehiaketa egingen da. Gainera, gonbidatuak izanen direla iragarri dute antolatzaileek.

Halere, igandekoa izanen da Kofradiaren egun haundia eta egun osoko egitaraua antolatuta dute:

- 09:00etan kofradeei harrera egingen zaie bai-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Irujo, Urko, Arrauz eta Argiñano izendatu zituzten Kofradiako kide berri.

nuetxean.

- 10:00etan Meza, Arangurengo abesbatzarekin.
- 11:30ean herri kirolak Migeltxo Saralegiren eskutik.
- 12:00etan onddo le-

hiaketa. Aldi berean, onddoak eta Nafarroako produktuak dastatzeko aukera izanen da frontoian.

- 13:30ean publikoaren artean zozketa egingen da. Onddoak eta Gijue-

loko urdaiazpikoa zozketatuko dira.

- 15:00etan bazkaria, gonbidatuekin.
- 17:30ean kofradien zirkuito-termala, gonbidatuekin.
- Ondotik Tokongo.

- 18:30ean igerileku termalean 25 erlaxio ibilbide (zozketa).
- 19:30ean igerileku termalean 25 erlaxio ibilbide (zozketa).

Aipatutakoez gain, bai larunbatean eta bai igandean ere, txaranga, txistulari eta akordeoiariaren doinuak aditzeko aukera izanen da.

IAZ BORTZ KIDE BERRI

Joan den urtean Irujo pilotaria, Urko kantaria, Julian Arrauz mikologo, Alfonso Salido sukaldaria eta Karlos Argiñano izendatu zituzten kofrade. Aurtengoak nor izanen diren momentuz ez dute iragarri. Aipatu, bertalalde, joan den urtean 100 kilo onddo prestatu zituztela Kofradiako ospakizunen harira, ikusi behar aurtengo nola joaten den.



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

Animatu termalismo aktiboa probatzera

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA

Bakarrik 10€ pertsonako

Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan)

Eskaintzaren azken eguna: urriak 31

BALDINTZAK ERRESERBA EGIN BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com



LEGASA

HIRIGINTZA → UR KONTAGAILUAREN IRAKURKETA

Orzeguna baino lehen jakinarazi beharko da bakoitzaren ur kontsumoa

Kontzejuko buzoian utzi beharko da irakurketaren orria

TTIPI-TTAPA

Egun hauetan, uraren kontagailua irakurtzera pasatu dira etxeetatik. Baina asko irakurri gabe gelditu dira etxeetan inor ez zegoe-lako. Horregatik, Kontzejuk bertze sistema baten bidez bilduko ditu datuak.

Kontagailua irakurri ez den etxeetara orri bat bidaliko da bakoitzaren ur kontsumoa apuntatzeko eta irailaren 30a baino lehen, bete eta kontzejuko buzoian utzi beharko du irakurketaren orria. Kasu eman,

UR KONTSUMOA

Ur kontsumoa irakurri gabe gelditu den etxeetako Kontzejuk banatutako orria bete eta buzoian utzi beharko dute.

Kuku elkarteko buzoia-ekin ez nahasteko.

Eskola garbitzeko lanaren enkantea

Eskolaren garbiketa egiteko enkantea atera du Kontzejuk. Eskola astean hiru aldiz garbitzeko izanen litzateke eta eskaintzak aurkezteko epea, irailaren 26an, joan den astean, akitzekoa zen. Garbiketaren ardura eskaintzarik merkeenari emanen zaiola adierazi dute Kontzejutik.



ARGAZKIA: MALERREKAKO GAZTE ASANBLADA

Gazte Asanbladak antolatutako argazki lehiaketaren bozketa eta sari banaketa eskolan egin dira

Malerrekako Gazte Asanbladak antolatutako argazki lehiaketaren bozketa parte-hartzailea eta sari banaketa Legasako eskolan egitekoak ziren irailaren 25ean. Horretarako zenbait gai proposatu zituzten: herriko bestak, Amalurra, sexua, drogak eta Euskal Herria. Gai bakoitzeko argazki bozkatuenaren egilearentzat saria banatzekoa zen, eta gainera, bozketan parte hartu zuten guztien artean ere zozketa egiteko zen sari bat banatzeko. Goian ageri den irudi horixe izan da Gazten Asanbladak argazki lehiaketa iragartzeko erabilitako kartela. Ea hurrengo alean saridunen berri emateko moduan garen.

EKONOMIA

IKASTAROAK → MERKATARIEI BIDERATUAK

Bera, Lesaka, Elizondo eta Doneztebeko merkatariek prestakuntza ikastaroak egiten ari dira

Ikastaroetan izen emateko aukerarik ez dago

TTIPI-TTAPA

Merkataritikiak indar-tzeko asmoz, prestakuntza ikastaroak egiten di-

tuzte eskualdeko merkatariek hilabete honetan.

Irailko hirugarren astean, **Donezteben** bezeroarenganako arreta hobetzeko teknikak landu zituzten. Urriaren 18tik 29ra, komertzioa kudeatzeko informatika ikastaroa eskainiko da **Elizondon**. Azaroan, erakuslei-



ARGAZKIA: NAFARROAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA

Doneztebeko ikastaroan bezeroarenganako arreta nola hobetu behar den landu zuten.

hoak antolatzeko teknika aurreratuen inguruan bertze ikastaro bat emanen da **Lesakan**. Azaroa -

ren 2tik 15ra emanen da. **Beran**, merkataritzara egokitutako paketeria eta bilgarrien erabileraz ari-

ko dira, azaroaren 16tik 22ra.

Tokirik ez, eta ezin da ikastaroetan parte hartu.

ERATSUN → ESLEITZEKO LEHIAKETA

Polaineko bizitza errentan emateko lehiaketa zabaldu du Eratsungo Udalak

Hasieran, 15 urterako hartzen ahal izanen da errentan

Fernando ETXEBERRIA

Eratsungo Udalak lehiaketa bidez esleitu du Polainean dagoen etxebizitzaren alokairua. Hasiera batean, 15 urterako emanen du errentan, eta hasierako prezioa hilabeteko 220 eurokoa izanen da.

Irailaren 17ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen iragarkia Udalak, eta hortik hasita 15 egun baliaduneko izanen da eskaerak aurkezteko epea.

Baldintzak eta puntuazioen gaineko oinarriak Eratsungo udaltxean eskura daitezke.

Xaloa Telebista Ezkurran

Xaloa Telebistako bi erreportari Ezkurra aldean ibilia dira hilabete honetan. Irailaren 10ean, herriko irudiak grabatzen aritu ziren, eta seguruenik, aldizkari hau argitaratzen den oraindik telebistan emitititu gabeak izanen dira.

Izenari buruzko informazioa eman zitzaion, baita historia azaldu ere, eta herriaren eta herritarren jabe zela pentsatzen zuen Ezkurako Aznar jauntxoaren eta herritarren arteko gorabeherak ere kontatu zitzaizkien Xaloa-

koei, herritarrak bere morroiak zirela uste baitzuen jauntxo hark.

Elkarrizketa eta bitxikeria horiez gain, elizan, frontoian, ermitan, labaderoan eta aurten 100 urte bete dituen Barranka Ostatuan ere hartu zituzten irudiak, baita XVII. mendekoa den Portonean ere. Etxehonek oraindik mantentzen duen tximini haundiari begira eta 260 metro koadroko ganbaran ibili ziren.

Irailaren 10ean grabatutakoa Xaloa Telebistan ikusteko aukera izanen da, baina seguru aski baita Interneten www.tokiko.tv web orrian ere.

Aipatu, bestalde, duela hilabete batzuk ETBk ere Ezkurako irudi batzuk emititu zituela, Ollingo burdinola eta meategienak, hain zuzen.

Azken aldiko ezkontzen berezitasunak

Azken aldian Ezkurran egin diren ezkontzak bereziak izaten ari dira. Abuztuan, adibidez, ezkontzera zihoan bikoteak Zubietako joaldunen laguntzarekin egin zuen herritik ermitarainoko bidea.

Irailan, bestalde, beste ezkontza baten aurretik, Barranka Ostatu Joseba ezkontzari ahaztuta duen afizioa tarteko, lagunek *Ahaztuta izugarria* izenarekin egin zioten ezkontza aurreko agurra.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Eratsungo jaiak giro ederrean

Krisi garaian egon arren, ez zen ekitaldirik falta izan irailaren 8tik 12ra egin ziren Eratsungo festetan: pilota partidak, Mindegia eta Larretxearen arteko aizkora apustua –Mindegiak irabazi zuen–, musika... Aurtengo berrikuntzetako bat emakumezkoek beraiek bakarrik egindako afaria izan zen. 37 lagun elkartu ziren eta goizaldeko ordu txikiak arte luzatu zen besta. Bestalde, nabarmentzekoa da Bendoiro pilotari gaztearen –argazkian– saioa. Etorkizuneko pilotaria izan daiteke, eta Retegi, Baleztena eta Eskuderoren zerrendan sartu da bera ere. Aipatzeko beste kontua, nahiz eta frontoi estali haundi bat dagoen herrian, pilota partidak frontoi txiki zaharrean jokatu izana da, ezkerreko paretan dituen bere bi leiho txiki eta guzti. Esaten dutenez, frontoi inguruan eta balkoietan elkartzeko antzinako ohitura mantendu nahi da horrela.

BEINTZAKO OSTATUA
TEL: 948 45 00 14
ORBELA

BIDASOA
TELUKAR - PERTSANTAR
ESTREMAR - AUTOMATEKARRA
MESTERAK - BEHINONTZA
T.F. 943 61 50 60
Alameda Lopez de Letamendi
IRUN - BERRA

Eginazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:
15.996

GOIZUETA

UDALA → HIRIGINTZA

Etxebizitza beharrak aztertze-ko inkesta egingen du Udalak urrian

20 eta 40 urte bitartekoei egingen zaie galdeketa

TTIPI-TTAPA

Etxebizitzaren arloan, herritarrek dituzten beharrak zein diren jakin nahi du Udalak, eta horretarako inkesta egingen du heldu den hilabetean, urrian. 20 eta 40 urte bitartekoei egingen zaie galdeketa, eta bi aukera izanen dituzte: errenta soziala edo Babes Ofizialeko Etxebizitza. Horietako zein nahiago duten aukeratu beharko da.

Sei etxebizitza errentan emateko proiektua abian du Udalak, baina deus finkatu aurretik herritarren iritzia bildu nahi izan du eta horregatik erabaki du inkesta egitea. Urri osoan egingen da.

Ikastaroak urrian hasiko dira

Ikasturte berriari begira, aurten ere ikasta-

roak antolatu ditu Udalak. Yoga, gimnasia, aerobic, margogintza-eskulanak eta gantxiloa-puntua dira eskainiko direnak. Aurtengo berrikuntza yoga da eta momentuz, arrakasta-

tsua izaten ari omen da. Joan den astean bukatzekoa zen izena emateko epea, baina Mieljoxe Lekuona alkateak adierazi digunez, gero ere izanen da apuntatzeko modua. Orain-

goz, eta ohi bezala, izena eman duten gehienak emakumeak dira.

Aurrekoetan bezala, ikastaroen %40 subentzionatuko du Udalak, eta ordutegia eta prezioa izena ematen du-

ten lagun kopuruaren arabera izanen da. Hori bai, ikastaroak aurrera ateratzeko, bakoitzean gutxienez zortzi hamar laguneko taldea osatu beharko da.



ARGAZKIA: ISKIBI KANPINA

Iskibiko kanpinak bukatu du denboraldia


Eguraldi bikainarekin, arrakastatsua atera zen Iskibi kanpineko Euskal Jaia. Dultzaineroen doinuek eman zioten festari hasiera, eta goizuetar eta zubietarren arteko desafioak ere jendea bildu ziren. Gainera, alde gutxiz bada ere, herritarrek atera ziren garaile. Talo jateak ere ezin gehiago eman, jendea gosetua etorri zelako edo, talo guztiak jan ziren. Euskal Jaiaren ondoren, joan den asteburuan egitekoa zen mozorro festarekin eman zioten Iskibikoek denboraldia-ri bukaera.

Espideko pista konpontzen

Espideko bidea hobetzeko lanak Olloqueigui eskabazioak enpresak egingen ditu. Udalak egindako deialdian, bera izan da aurrekonturik merkeena aurkeztu duena eta 69.673,22 eurotan esleitu zaizkio. Hasia da dagoeneko lanean.

Olaizola II.a hasi da entrenamenduekin

Apirilean belaunean min hartu zuenetik, jokatutako gabe egon da Aimar Olaizola, baina hasi da berriz entrenamenduetan. Irailaren 20an egin zuen lehenengo saioa Legution (Araba) eta entrenamenduen ondotik, oso ongi sentitzen zela adierazi zuen.



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardurarik gabe, zure igogailu instalatzen dizugu

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
948 63 54 58



HEZKUNTZA → 2010/2011 IKASTURTEA

Hamar neska-mutikok hasi dute ikasturtea Goizuetako eskolan

Haizea eta Leire dira aurten hasi diren ikasle berriak

Kontxi KLABER

Urte asko izan dira oso haur gutxirekin mugitu dela Goizuetatik Ararora txikitxoan bila etortzen den garraioa. Baina badirudi azkeneko urte hauetan gorantz egin duela herriko umetxoan kopuruak eta pixkanaka txandan-txanda eskolara mugitzeko garaia helitzen ari zaiela. 2009ko irailean bi berri hasi ziren eta aurtengoan beste bi: Haizea eta Leire. Guztira hamar haur joaten dira 3 eta 8 urte artekoak.

Pasa den urtean, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa txar baten on-



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Hamar neska-mutiko hauek dira ikasturte honetan Goizuetako eskolara joanen direnak.

dorioz, bi ibilgailutan banatuak joan ziren umeak, hiru alde batetik eta bost bestetik. Aurtengoan, ordea, elkarrekin joaten dira autobus berrian eta begiralea ere badute. Aipatzekoa da hamar hauek ez direla herriko

haur guztiak, beste batzuk oraindik txikiegiak dira eskolaratzeko eta badira Hernani eta Donostiako ikastetxetara joaten direnak ere.

Kale izen berriak

Uztailaren 29an eginda-

ko bilkuran behin betikoz kale izen berriak onartu zituzten. Espedientea udaletxeko iragarki oholean jendarean egon eta gero, alegaziorik ez aurkeztearekin onartu ziren. Lehen hiru kale ziren: Goiko-

herria, Juan Donosti eta Ermita kalea. Eta orain bakarrizatea onartu da: Goiko-herria kalea.

Herriarena zen eremua salduko du Udalak

Bere garaian aipatu ez bazen ere, herriarena zen 1.131 metroko lur eremua partikularren esku utziko du Udalak. Herri lurak libratzeko baimena abuztuaren 30eko bileran eman zuen Nafarroako Gobernuak, eta horren bidez, Telleriko Errekako lehen poligonoa 23. lursaila bi partikularrei salduko zaie. Lurra banatu eta 422 eta 709 metro koadroko bi zatitan geldituko da. Partikular horiek ohiko etxebizitzak dituzten lurren titulartasuna araupetzea da helburua.

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak

LEITZA

KIROLA → OSPAKIZUNAK

Aurrera Kirol Elkartearen pesta larunbat honetan egingen da

Egun osoan izanen dira ekitaldiak

TTIPI-TTAPA

Dena prest dago larunbatean, urriak 2, Aurrera Kirol Elkartearen urteko hitzordurik nagusietako baterako: Aurrera-ko Pestarako, alegia. Goiz-arratsaldez izanen dira ekitaldiak:

- 09:00: txistulariekin diadina.
- 10:00-13:00: rokodromo, tirolina eta zaldiak umeentzako plazan.
- 10:30: Aurrera-ko Kirol Jolasen eskutik futbol partida plazan.
- 11:00: Aurrera-ko pilotarien pala partida plazan.
- 12:00: Aurrera-ko dantzarien saioa plazan.
- 13:00: Incansable txarangarekin poteoa.
- 14:30: Aurrera-ko bazkideen bazkaria.
- Bazkalondoren, bazkideen Ingurutxo plaza.
- Ondotik txarangarekin poteoa.
- 21:30: luntxa Aurreran.
- 22:30: Joxe Mendizabalekin dantzaldia.

Batzorde berriarekin Pilota Eskola lanean

Aurreko batzordeak kargua utzi ondotik, komisio berriarekin hasi du ikasturte berria Aurrera Pilota Eskolak. Unai Olano, Axier Gartzia, Juanito Mariezkurrena eta Mikel Andueza dira batzordekide berriak.

Baina beti bezala, adinaren arabera, talde bakoitzak bere monitoreak eta ordutegia izanen ditu: **benjamin eta alebi-**



ARGAZKIA: NEXO COMUNICACION

28 Tona hondakin bildu dituzte bost hilabetez Mendialdean

Mendialdeko Mankomunitatean plastikozko ontziak, latak eta brickak biltzeko edukiontzia jarri zirenetik 28 Tona bildu dira. Halaxe jakinarazi zuten irailaren 22an Xabier Zabalo Mendialdea Mankomunitateko ordezkariak eta Goi-Araxes, Bidausi eta Zona 10eko Mankomunitateetako ordezkariak, Amelia Salanueva Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Hondakinen Zerbitzuko presidentarekin batera udaletxean egindako agerraldian. Lau mankomunitateen artean 64 Tona bildu dira.

nak astearte eta ostegunetan bilduko dira 16:30-etik 19:30era, Juan Joxe Mariñelarena eta Xabier Jaunarenarekin. **Infantil, kadete, jubenil** eta **seniorrak** astelehenean 19:00etatik 22:00etara eta asteazkenetan 17:00etatik 20:30erarik dira, Josetxo Txoperena eta Mikel Saenzekin. **Neskak palaz** entrenatuko dituztenak Jose-txo Txoperena eta lera Agirre izanen dira eta astearte eta ostegunetan bilduko dira, 19:30etik 20:00etara.



Pertsonaia
Mikel NIEVE

Vueltako etapa nagusian lortu du profesional eta letako lehen garaipena

Euskaltel-Euskadiko Mikel Nievek (Leitza, 1984) irabazi zuen irailaren 13an Espainiako Vueltako 16. etapa: Gijon-Cotobello. Lasterketako etaparik gogorrena izan zen, lehenengo mailako hiru mendaterekin, eta huraxe izan zen bere profesional eta letako lehen garaipena. Saikapen nagusian 12. postuan bukatu zuen Vuelta.



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Nafarroako 12 taldetako 230 dantzari Leitza

Nafarroako Dantzari Federazioak eta Aurrera elkarteak antolatuta Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna egin zen irailaren 11n, eta horren harira, dantzari bete zen herria: Amaiur, Agoitz, Arantza, Ardantzeta, Aurrera, Basakaitz, Erreka, Harizti, Mikelats, Oberena, Orritz eta Txorizuri dantza taldeak etorri ziren. Eskolatik hiru multzotan abiatuta, kalez kale ibili ziren saioak eskainiz. Musikariaren laguntzarekin kasik bi orduko kalejira egin ondotik, talde guztiak plazara bildu ziren eta han denek elkarrekin dantzatu zuten.

HIRI HONDAKINAK → MENDIALDEA MANKOMUNITATEA SORTU DENETIK

Neurri handiko trasteak ez dira Axeneko Borda azpian utzi behar

Emauseko Traperoei edo Mankomunitatera deitu, edo Leitzara eraman behar dira

Juana Mari SAIZAR

Inguruko beste herriekin batera, Mendialdea Mankomunitatean sartu garenetik, hondakinen bilketa aldatu egin da. Hala, neurri handiko traste zaharrak dagoeneko ez dira Axeneko Borda azpian utzi behar. Edukiontzia ere kendu egin dute, eta orain, hiru aukera daude: Leitzara eraman, Emauseko Trapuketariei deitu eta dohain etorriko dira etxera edo bestela, Mankomunitateko 948 510044 telefonora deitu.

Telentxone inguruan lanean

Sutegiko errota erabiltzen ez zenez, lpa -

rraldeko Ur Konfederazioak honen presa kentzea erabaki zuen erreka saneatzeko asmoz. Baina ura aldemeneko lurrak eramaten ari zen eta honenbestez, Sasoi enpresa Telentxone inguruan pareta batzuk egiten ari da ezker eskuin, kalteak uste baino handiagoak izan baitira.

Hirurteko Planerako proiektuak

Nafarroako Gobernuaren Hirurteko Planingintzaren barruan 2010eko abeltzaintzarako dirulaguntzak zehaztu ditu Udalak. Hala nola, Urteagako itxitura, Autzeneko Borda eta Luxiarnako Bordaren tartean

bidea, Felipe Borda, Iruñegi eta Otsaidako Bordara ura eramatea, Pedroneko Bordara aska eta ura eramatea, Egoarre eta Martiñoneko Bordara pista eta Uli mendira pista berria.

Hau guztia zein enpresak egingo duen erabaki gabe dago oraindik, nahiz eta deialdia egina dagoen.

Festetako egurra enkantean

Festetan erabilitako egurra enkantean aterako da 15 eurotan. Horretarako, irailaren 28a baino lehen eskaintzak gutunazal itxi batean hartzeak ziren.

Ireki eta gero, diru gehiena eman duenarentzat izango da aipatutako egurra, nahiz eta ondoren berriro sestatu ahal izango den.

Jose Antonio Alustiza seigarren Ttikirekin

Irailaren 19an jokatu zen Atxondoko (Bizkaia) Axpe auzoan Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa, baina Jose Antonio Alustizak ezin izan zuen joan den urtean bezala txapela herrira ekarri. *Ttiki* txakurrarekin Nafarroako lehian garaile ateratu zen; aldiz, Euskal Herrikoan, seigarren postuan gelditu zen. Txapela Marzel Hualde Aldudekoak (Nafarroa Beherea) eraman zuen.



ARGAZKIA: LIERNI SAGASTIBELTZA

21 ikaslek hasi dute ikasturte berria

21 ikaslerekin hasi da aurten ikasturtea. Horietatik lau dira sartu diren berriak: Jon, Nerea, Izaro eta Hodei.

Eskalerak igotzea... ez da aztapol
plataformak
igogailu bereziak
auki bereziak...

Behetik

Aforgo txiki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

ttipi-ttapa FUNDAZIOAK zure laguntza behar du

eginazu ttipi-ttaparen alde proiektu zenbakia: 15.996

813 Eskerrik asko
LAGUNEN egiri dute gure alde
Zure laguntza eskertzen, jarduera edo hiru izanen aldea opartu.

Eko ezazu ttipi-ttapa proiektua aukeratu izanaren laguntza Nafarroako Kultura eta Laguntza eta Ekintza Ttipi-ttapa 2010eko abuztuaren 30a bitartean.

www.ttipi-ttapa.com

BAZTAN

BESTAK → GARTZAINGOAK URRIAREN 8TIK 12RA

Bortz eguneko bestak izanen dira aurten

Pilarika Egunean akituko dira ospakizunak

ORTZILERIA 8 Bezpera

19:30ean txupinazoa eta ezkil jotzea. **20:00etan** kontzentrazioa Etxarrin: Euskal Presoak Etxera. **21:30ean** Baztanzopak Trinketean. **00:00etan** dantzaldia KUEPELA taldearekin. **06:00etan** zinger jatea.

LAUNBETA 9 Gazte Egune

10:00etan dianak eta argisoinuak. **14:00etan** gazte bazkaria. **16:00etan** gazte ginkana. **20:00etan** triki-bertso poteoa. **21:30ean** Mutildantzak. **22:00etan** paella jatea frontoian.

00:00etatik aitzinera rock kontzertuak. **On-dotik** dantzaldia DJ TIRRITERIrekin.

IGANDEA 10 Haurren Egune

10:00etan dianak eta argisoinuak. **12:00etan** Meza Nagusia parrokian. **16:30ean** Gorriti eta bere animaliak. **18:00etan** haurrendako txokolatada. **20:00etan** patata tortilla lehiaketa. **22:00etan** Mutildantzak. **22:30ean** patata tortilla jatea frontoian. **Ondotik** dantzaldia SALABERRIrekin.

ASTELEHENA 11 Herritarren Egune

10:00etan dianak eta argisoinuak. **11:00etan** herri kirolak herrikoen artean. **14:00etan** zikiro jatea. **Ondotik** boletoen zozketa eta trofeo banaketa. **Segidan** dantzaldia SALABERRIrekin. **22:00etan** Mutil-



ARGAZKIAK: MIKEL GALARREGI ETA ARTXIBOKOA

Bestarako gogoia ongi pasatzeko ezinbertzeko osagaia izaten da eta aitzineko urteetan behintzat ez da halakorik falta izan.

dantzak. **22:30ean** luntxa. **Ondotik** gaupasa SALABERRIrekin.

ASTEARTEA 12 Pilarika Egune

10:00etan dianak eta argisoinuak. **12:00etan** Meza Ariztegiko ermi-

OHARRA

Baztanzopetarako txartelak Fransene, Saioa eta Kortarixar ostatueta egonen dira salgai urriaren 4ra arte eta zikiro-jatekoak urriaren 6ra arte.

tan. **Ondotik** luntxa. **17:00etan** mus zimizte txapelketa. **19:00etatik 22:00etara** dantzaldia

KALAKAK taldearekin. **22:00etan** GAIXOA NI eta bortz eguneko besten akabaila.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua



Santiago, 59 2º - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 inuñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

Kulturkari
Kulturkariak

Logelapoen diseinua
Targien diseinua
Triptikoa, koloreak, harpeak,
guzuzetak, fakturak,
kartelak, egutegiak,
irudi korporatiboa

eskala berekoak
komunikatu gabe!

Ariztegia, 12 - 31760 Etxalar
Tel. 948 635 458
kulturkari@tipi.net

ANTXITONEA
Txikitoa

24 inguru berrituak - Apartaketa
Aste gutxiarekin puztuak - Hartzeak eta TI
Gela berrak saski- eta bost zerbitzuak



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

HIRIGINTZA → ELIZONDO

Foru Plazan egitekoa den udal eraikinaren lanak laster hasiko dira

Kontratazio mahaiak Mariezkurrenaren eskaintza lehenetsi du

TTIPI-TTAPA/M. OTEIZA

Elizondoko Foru Plazako lanek aitzinera segitzen dute. Bi zatitan egiten ari dira obrak eta lehendabiziko fasean, plaza urbanizatu eta itxuraldatzekoa da. Udalak TTIPI-TTAPari jakinarazi dionez, zati hau akitzeaz dago.

Bigarren zatian, berriz, Foru Plazan eraikitzekoa den udal eraikina egiten da eta fase hau ere martxan dagoela adierazi dute Udaletik. Udal eraikinaren obrak adjudikatzeko kontratazio mahaia abuztuaren 31n osatu zen eta bortsu enpresa aurkeztu ziren. Bakoi-tzaren eskaintzak aztertu ondotik, kontratazio



mahaiaren proposamena lanak Mariezkurrenaren enpresari esleitzeko izan zen, 599.999,99 eurotan eta lanak egiteko lau hilabeteko epearekin. Dena den, behin behitiko esleipena egiteko, urrian egiten den hurrengo Udalbatzak oniritzia eman beharko dio kontratazio mahaiak proposatutakoari.

Eraikina egin ondotik, hirugarren fasea geldituko da, 234.000 euroko aurrekontua duena. Honetan, altzariak paratu eta bertzelako osagarriak (elektrizitate eta argiteri-sistemak, berogailua...) egiten dira.

BI SOLAIRUKO ERAIKINA

Erabilera anitzeko eraikina izanen da Foru Plazan egiten dena, Doarq arkitektura estudioek diseinatua. Bi solairu izanen ditu eta eraikitako 450 metro koadro edukiko ditu.

150 metro koadro izanen dituen beheko solairuan, sarreraz gain, ezker aldean turismo bulegoa joanen da. Eta bertze aldean, kultura eta kirol sailak kokatuko dira. Lehendabiziko solairuak eraikitako 350 metro koadro izanen ditu eta bake epaitegiak, erabilera anitzeko bulegoa, bilera gela eta egongela izanen ditu. Bi terraza ere egiten dira.

Bi solairuetan komunak, biltegiak eta insta-



UTZITAKO ARGAZKIA ETA MAITE OTEIZA

Goiko irudian, Elizondoko Foru Plazan eraikiko den udal eraikinak hartuko duen itxura ikus daiteke. Behekoa, berriz, lanean ateratakoa da.

lazioen gelak izanen dira, bertzeak bertze.

Aipatu, bertzelde, hasiera batean izan behar zen proiektua, ideien le-


hiaketan irabazitakoa, alegia, baztertu eta proiektu berri bat egin duela Doarq arkitektura enpresak.



ARGAZKIA: MARIA JOSE EGULEA

Arraioztik Gorramendira

Aitzineko alean aipatu genuen eta Arraioz aldean bisitan ibili zen putrea bizirik hartu eta Gorramendira eraman zuten. Han barna ibiliko da orain...



BAZTAN

KULTURA → AZPILKUETA, ARIZKUN, ELIZONDO, IRURITA ETA BERROETA

Herriz herri abesbatzen kontzertuak izanen dira igande honetatik aitzinera

Igandean, Azpilkuetako elizan hasiko da itzulua

TTIPI-TTAPA

Done Jakue Bideari lotutako 47 herritan abesbatzen emanaldiak entzuteko aukera eskainiz, *Bideko abesbatzak* izeneko programa paratu du aurten martxan Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean. Eta horren barne, heldu diren asteburuetan hainbat emanaldi eskainiko dira Baztanen.

Larunbat honetan, urriak 2, **Urdazubiko** elizan Nafarroako Abesbatzen Federazioak eskainiko duen emanaldia- ren ondotik, urriaren 3an, igandean, talde bera **Azpilkuetako** elizan ariko da, 12:30etik aitzinera.

Urriaren 9an, **Arizkun**en Iruñeko gaztetxoan orfeoia eskainiko du saioa, 19:00etan elizan. Urriaren 10ean **Elizondok** hartuko du lekukoa eta Doneztebeko Abesbatza elizan ariko da kantuan, 13:00etan hasita.

Urriaren 16ean **Irurita**ko elizan, Loiola haur kantariak ariko dira, 19:00etan. Urriaren 17an, azkenik, Giltzarri abes-

batzak **Berroetan** eskainiko du emanaldia, 12:00etatik aitzinera elizan.

Jauregi etxeak eta leinu dorreak

Juan Jose Martinena historialariak hitzaldi bat eskaini zuen irailaren 17an Irurita Jauregian, *Palacios Cabo de Armería y torres de linaje* izenburupean. Nafarroako jauregien bilakaeraz, jatorriaz eta bertan bizi ziren familien abantailez aritu zen. Jauregian egindako lehenbiziko hitzaldia izan zen, baina ekimen gehiago aurrekusiak dituzte.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztango Herrietako Eskolek urrian paratuko dituzte ikasturte honetako eskolaz kanpoko jarduerak martxan.

Denetariko aukera izanen da: euskal dantzak, judoa, trikitixa-panderoa (heldu eta haurrak), txistua, esku-pilota, eskulanak, mekanografia, yoga (haur eta helduak), marrazketa, laxoa, ingeles, aerobic, pilates (helduak)...

Istilar hirugarren Euskal Herri mailan

Hirugarren postua lortu du Joxe Mari Istilar amaiurtarrak Euskal Herriko Artzain Zakur Txapelketan. Irailaren 19an jokatu zen Atxondoko (Bizkaia) Axpe auzoan eta *Lagun*-ekin lortu zuen postu hori.



ARGAZKIA: AINIZE S.M.

XVIII. mendeko emakume baztandarrek uste baino boteretsuagoak

«XVIII. mendeko emakume baztandarrek uste duguna baino botere haundiago zuten». Halaxe adierazi zuen Gaspar Castellanos Gaston historialariak irailaren 10ean Arizkunenean eskainitako hitzaldian. Garai hartako emakume baztandarren inguruan aritu zen, zehazki, sei emakume baztandarren biografia bitxiak kontatu zituen. Bertzeak bertze, Maria Josefa de Dolarea erratzuarraz mintzatu zen. Parmako Maria Luisa erreginaren –Carlos IV.aren emaztea– camarista edo zerbitzari nagusia izan zen. Orduko etxeandreen paperaz ere solastu zen historialaria, eta aipatu zuenez, lotura «izugarria» zuen etxearekin. Etxeak, eraikinaz aparte, familia irudikatzen zuen Baztanen. Etxea, dena zen. Gisa beran, pentsatu izan da etxea seme nagusiarentzat gelditzen zela, baina Castellanosek ikertutakoaren arabera, aunitzetan alabaren esku ere gelditu zen.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Beartzundarren besta

Beartzun auzoko bizilagunek, urteroko ohiturari eutsiz beraien Adiskidetasun Eguna egin zuten irailaren 18an. Antxitonea trinketeen bildu ziren, ez bakarrik gaur egun auzoan bizi direnak, baita Bilbotik edo Paristik etorritako Jesus Ezkurra ere, El Tubo ostatuko nagusi zen Urbano zenaren anaia. Aipatzekoa da adin ttikiko neska-mutiko aunitz bildu zirela ospakizunera, auzoak eta auzoko bestak etorkizuna segurtatua duenaren erakusgarri.



OSPAKIZUNAK → ALMANDOZ

Mendiola auzokoek besta eguna izanen dute larunbat honetan

Mezaren ondotik, bazkaria eginen dute

TTIPI-TTAPA/M. OTEIZA

Almandozko Mendiola auzokoek besta eguna izanen dute larunbat honetan, urriak 2. Ez dute errepikatu gabe utzi nahioan den urtean egin zuten besta, eta Mendiolan bizi direnek, bizitu izan direnek eta haiekin harremana duten guztiak egonen dira gonbidatuak. 13:00etan meza izanen da eta ondotik, bazkaria eginen dute Beola jatetxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gizarte zentroa inauguratu dute Elbeten

Garai bateko eskolaren beheko solairuan kokatu dute Elbeteko gizarte zentro berria. Herriko bestetako egun haundian inauguratu zuten egoitza, irailaren 14an, eta Jabier Azpiroz Elizondoko apezak bedeinkatu zuen, Juan Zabala apezaga lagun zuela. Martin Garde, Lander Santamaria, Miguel Angel Aldea, Mari Carmen Iribarren eta Santiago Aldako zinegotziak izan ziren ekitaldian.

Irurritako Nafarroako Kutxa bi egunez irekia
Nafarroako Kutxak Iruri-

tan duen bulegoko ordutegia murriztu eginen du urriaren 4tik aitzinera. Gaur egun egunero irekia dago, 08:00etatik

14:15era. Orduetegi berriarekin astearte eta ortzegunetan bakarrik irekiko lukete. Irurritakoarekin batera, Urdazubin eta

Sunbillan ere egin nahi dute murrizketa.

Argi dago gure herrietako zerbitzuak poliki-poliki guttitzen ari di-

rela, horrek herri mailan dituen ondorioekin.

Norbaitek kexa egin nahi badu, bulegoetan erreklamazio orriak ditu.



PERTSONAIA
Itziar ERASUN

Hirugarren Munduko Kenpo Txapelketan

Berandu bada ere, ezin aipatu gabe utzi Itziar Erasun Erauzetamurgilek joan den abuztuan Japonian jokatu zen Kenpo Kaiko Munduko Txapelketan egindako lana. Hamamatsu herrian jokaturako lehian, bikain moldatu zen 29 urteko elizondarra, eta emakumezkoetan hirugarren gelditu zen.

Nafarroako Gobernuaren enpresa laguntzailea

H. LOPEZ
Ez galdu aukera!
Deitu eta informa zaituzte

Galdaren Renove Plana 2010



- **400 euroko dirulaguntza**
banako galdarak edo kondentsazio galdara estankoen bidezko atmosfera-berogailuak aldatzeko, 70kW baino potentzia handiagoa ez dutenak. Guttieneko inbertsioa: 1.200 euro.
- **800 euroko dirulaguntza**
erradiadore bidezko berogailua edo kondentsazio galdara estankotan oinarritutako sistema duten metagailu elektrikoak aldatzeko, 70kW baino potentzia handiagoa ez dutenak. Guttieneko inbertsioa: 3.000 euro.

TRAMITE GUZTIAK EGITEN DITUGU
Zure galdararen edo berogailu sistemaren aldaketa eskatu behar diguzu, bertzerik ez. Gainera, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza tramitatzeaz eta finantziazioaz arduratuko gara. Jarri zaituzte gurekin harremanean eta dirulaguntza jasotzeko eskatzen duten modelo eta instalazio-aukerari buruz informatuko zaitugu.

Instalazioaz gain, galdararen mantentze zerbitzua eskaintzen dugu

Etekinera aterako %0ko interesarekin duen finantziarioari

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzei

T. 948 452 126
Santiago, 83 ELIZONDO • www.honestolopez.com

ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → BAZTAN ETA ZUGARRAMURDI-URDAZUBIKO ESKOLAK

Herrietako eskolen besta igandean Zugarramurdin eta Urdazubin

Goizean paseoa egingen da Zugarramurdin eta gero bazkaria Urdazubin

Margari eta Koro

Iuritari lekukoa hartuz, Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztango Herrietako Eskolen hirugarren besta Zugarramurdin eta Urdazubin egingen da aurten goan. Igande honetan, urriak 3, izanen da.

Goizean, 11:00etan oinez paseoa egingen da gure herrian barna, eta eguerdian Urdazubiko frontoira joan eta bazkari autogestionatua egingen da. Bazkalondoren, berriz, dantzaldia izanen da 18:00 arte.

Sorginkeriarekin lotutako filmak ikusgai

1610-2010eko ekitaldiak direla-eta, zinezikloa eskainiko zaigu udazken huntan. Sorginkeriarekin lotutako bortz pelikula hauek Sorginen Museoko aretoan ikusteko aukera izanen dugu heldu diren larunbatetan:

Lehendabiziko filma, *Häxan* izenekoa, larunbatean, urriak 2, emitituko da. Hurrengo, urriaren 9an izanen da, *Dies Irae* deitua.

Urriaren 16an *El Crisol* filma eskainiko da; urriaren 23an *Akelarre* pelikula izanen da ikusgai, eta urriaren 30ean

Nicky, aprendiz de bruja. Azken hau haurrendako da eta 17:00etan hasiko da.

Aipatu bezala, larunbatez izanen dira, 19:00etan, eta dohainik. Informazio gehiago web orri honetan eskura daiteke: www.turismozugarramurdi.com.

Mendi ateraldiak

Uztaila eta abuztuaren bakantzak hartu ondoren, irailaren 26an hasi zituzten berriz ibilaldiak Atxuria Mendi Taldekoek. Bera-Hendaia egin zuten egun horretan, eta hauek izanen dira ondoko hilabetetakoak: Zortzi milak urrian, Har-

petako Saindua azaroan eta Aiako harriak abenduan.

Bake-epaile hartzeko deialdia

Bake-epaile plaza berria atera du Udalak. Interesatuak daudenek Herriko Etxerat eraman behar dute eskaria.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Bide-seinale berria

Kanpotarrak herrira sartzen zirenean, misterio batekin topatzen ziren orain arte: ez zekiten zein herritara ailegatuak ziren. Hemendik aitzinera ez da misterio gehiago izanen: hainbat hilabetez faltan egon den sarrerako izenaren kartel berria paratu dute.



URDAZUBI

Nafarroako Kutxak zerbitzua murriztu egin nahi du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kutxak jakinarazi duenez, Urdazubin duen bulegoan zerbitzua murriztu egin nahi du. Egunero bulegoa irekia izatetik, astean hiru egunetan bakarrik zabalzera pasatu nahi du: astelehen, asteazken eta ortzi-zaletan ireki nahi ditu bulegoak. Nafarroako Kutxaren erabakia ez dute begi onez jo herritarrek, zerbitzuak egunerokoa izaten segitzea nahi dutelako. Udan, bulegoak egunero ireki baziren ere, ordutegi murriztutarekin aritu ziren, 11:00etatik 14:00etara eta horrekin jendea ez zen konforme gelditu. Zerbitzua hiru egunetara mugatzen baldin badute...

Nafarroako abesbatza larunbatean elizan

Bideko abesbatzak izenarekin Nafarroako Gobernuak abian paratua duen programarekin bidez, Done Jakue Bideari lotutako hainbat emanaldi eskaintzen ari dira herriz herri. Hain zuzen, larunbat honetan, urriak 2, Urdazubiko elizan, Nafarroako Abesbatzen Federazioak emanaldia eskainiko du. 19:00etan hasiko da saioa.

SENPERE



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Azken kantu xaharren bazkaria 2008ko buruilean.

KULTURA → KANTUAN

Zortzigarren kantu xaharren eguna Larraldean ospatuko da urriaren 10ean

Bazkarira joan nahi duenak aitzinetik eman behar du izena

Franck DOLOSOR

Senpere aldeko euskal kantu xaharren eguna urriaren 10ean iraganen da, Amotzen Larraldean. Zortzigarren aldikoz, adin haundiko senperrak eta kantu zaleak elgarretaratu dira kantu zombaitzuen eskaintzeko.

Azken urteetan, kantu, bertsu eta testu an-

dana bildu ahal izan da bazkari herrikoien hauen kariatarat. Bildu den ondare guzia zombait disketan, bideo eta liburutant hedatu ditu gero Oxtikenekoak elkarteak. Horiek oro balio haundikoak dira gure ahozko ondarearen lekukoak baitira.

Kantu xaharren egunak bide egiten du eta aurten Eneko Bessonart eta Sébastien Etcheverry kantari gazteek lekukoa hartu dute egunaren apailatzearen ardura beren gain hartuz. Besta hortan, eta egun



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Zoe Bray margolariaren erakusketa ikusgai da Amotzen

Egun hauetan, Ipar Euskal Herri osoan iragaiten ari den bigarren bertsu xapelketa Senperen hasi zen, Bertsularien Lagunak elkarteak Larraldea etxalde kulturalean egin zuen aurkezpen ekitaldiarekin. Final haundia Donibane Lohizuneko Jai Alain jokatu da hazilaren 13an. Egun hortan, bertsulariak entzuteaz gain, Zoe Bray margolari gazte euskaldunberriak marraztu dituen erretratuak ikusteko parada izanen du publikoak. Andoni Iturriotz senperrak galde-turik 22 bertsularien aurpegiak margotu ditu Zoe Brayk, hauen artean, Amets Arzallus txapelduna, Sustrai Kolina, Xanpun, Txomin Ezpanda, Mattin eta Xal-bador, baita aspaldiko koblakari senperrak ere: Batista Millox, Ganix Hallsouet eta nolaz ez Matxin Irabola. Urriaren 9an, 18:00etan, ate idekitze eguna eginen da Larraldean margo hauek erakusteko. Amoztarrak eta, oro har, bert-suzaleak gomiatu ditu Andoni Iturriotzek.

hortako bazkarian parte hartzeko, izenak

eman behar dira lehen bai lehen Senpereko tu-

rismo bulegoratu deituz: 05 59 54 11 69.



Bereziki ehiztarientzat

Elikadurarik hobereena zure txakurarentzat

animaien kalitatezko elikatzeari, 40 urtetako eskaintza emanez beste produktu, baldintza edo zerbitzuentzako gurekin kontaktuan jarri.

> Dog Sport
% 25 proteina % 10 gantza: **10 €**
BEZ bane

> Dog Energy
% 33 proteina % 15 gantza: **13 €**
BEZ bane
• 20 Kg-ko zakuak

ZAGUA
ZABUR, PENTSUA

PENTSUA ETXERA
ERAMATEA DOHAIRIK

Frantziako errepidea, s/n
31714 Erratzu
M. 647 525 363

SARA

BERTSOAK → XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARRE

Bertsulari Xapelketako 3. kanporaketa jokatuko da larunbat honetan

Lur Berri aretoan izanen da, 20:00etatik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsulari xapelketak Saran egingen du geldialdia larunbat honetan, urriak 2, txapelketako hirugarren kanporaketa jokatuko baita egun horretan herrian. Lur Berri aretoan izanen da, 20:00-etan hasita.

Sei bertsulari hauek ariko dira lehian: Ekhi Erremundegi, Mixel Xal-

bador, Eneritz Zabaleta, Xan Alkhat, Maindi Murua eta Bixente Luku. Bakoitzak hamabina bertsu puntuagarri bota beharko ditu.

Txapelketari buruzko xehetasun gehiago 36. orrialdean.

Kantu afaria urriaren 9an

Larunbat honetan zortzi, urriaren 9an, kantu afaria egingen da Lur Berri gelan. Aperifiboaren eta afariaren prezioa 20 eurokoa izanen da eta txartelak Herriko Etxeko Edantegian erosten ahalko dira.



ARGAZKIAK: IDOIA ERRANDONEA

Giro ederrean bestak

